1919·2019

ARGIA

INORK ESPERO EZ ZITUEN JAKA HORIEK

#2.630 | 2019/02/03 | 3,90 €

Balioetan oinarritutako sariak

23 | ARGIA SARIAK 2019

Irregulartasunak Lanbide Heziketan?

32 | ARGIAK LOTURIKO DOKUMENTUA

Zinemaren historia hasieratik... eta feminismotik

44 | KULTURA

Sartu ARGIAko AZOKAn eta ezagutu eskura duzun guztia

Ikus-entzunezkoak


Mahai-jolasak


Laminak eta mapak


Gorputza


Eguzki lorearekin egindakoak


Bitxiak

Argitalpenak


Elikagaiak


Eskulangintza

Jantziak


Jostailuak

Besteak

azoka

https://azoka.argia.eus/

ARGIA

2.630 zenbakia I Otsailak 3, 2019

Panorama

04 I ASTEKO ARGAZKIA
06 I AKTUALITATEA
07 I GAIZKI ERRANKA
07 I EZ HANKA EZ BURU
08 I EKONOMIAREN TALAIAN

AZALEKO ARGAZKIA:
ETIENNE LAURENT / EFE

Iritziak

19 I KARMELO LANDA
20 I JUNE FERNANDEZ
21 I ENRIKE DIEZ DE ULTZURRUN
21 I ITZIAR BARDAJI
22 I OIER GUILLAN

GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

35 I DENBORAREN MAKINA
40 I BIZI BARATZEA
40 I ARGIA KOMUNITATEA
48 I KULTUR-KRITIKAK
50 I ZUZENEKO EMANALDIA
51 I DENBORA-PASAK
52 I ARGI-KONTRA:
CARLES PALACIO
54 I BERANDUEGI

DANI BLANCO

14 I **MIKEL SOTO**
Danele Sarriugarte hamahiru urtez Txalaparta argitaletxeko editore izandakoarekin mintzatu da.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 I NET HURBIL
Jaka Horiak: inork espero ez zituen horiek
Pello Zubiria Kamino

23 I KOMUNIKAZIOA
Argia Sariak 2019: balioetan oinarritutako sariak
Itsaso Zubiria

28 I IPAR EUSKAL HERRIKO LABORANTZA
Egitura publiko baten proposamena plazara
Jenofa Berhokoirigoin

32 I DIRU PUBLIKOAREN ERABILERA
Irregulartasunak Lanbide Heziketan?
Mikel Garcia

36 I NAZIOARTEA I MARC'HARID
"Ikasleen gurasoen %90 ez dira bretoiera hiztunak"
Jonmikel Intsausti

44 I KULTURA
Zinemaren historia hasieratik... eta feminismotik
Danele Sarriugarte Mochales

OLATUKOOP
EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNDUA)

Jabetza
Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Gorka Peñagarikano, Iñigo Igartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona
Diseinua
Maitane Gartziandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte
Salmenta
Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametza interaktiboa, S.L.
Lege gordailua
SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa
943371545

Ametzagaiña taldeko kidea da Argia honako enpresekin batera:
Antza inprimategia
Iametza komunikazio zerbitzuak
Adur informatika zerbitzuak

antza KOMUNIKAZIO GRAFIKOA
iametza interaktiboa
ADUR software productions

Doan eta libre

Argiako edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.

CC BY SA

MUGA BAINO, HELMUGA

ARGAZKIA I **GORKA RUBIO (FOKU)**
TESTUA I **AXIER LOPEZ**

Azken sei hilabeteetan, 5.500 pertsona artatu ditu Irungo Harrera Sareak. 2.000 gurutze jarri ditu Sortuk Donostiako Kontxa hondartzan, iaz Mediterraneoan itota hil zirenak bezainbeste. Espainiako Gobernuak hitzartutako migratzaile kopurutik %11 jaso ditu, eta Frantziako Gobernuak %22. ACNUR-en arabera, 2017an 68.500.000 lagun ziren sorlekutik alde egin behar izan zutenak. Kopuru dantza amaigabea da errefuxiatuena. Zenbaki izateari utzi, eta pertsonak pertsona gisa hartuko dituen herria aldarrikatu dute asteburuan. Euskal Herria helmuga izan dadin, eta ez muga inorentzat.

AQVARIVM
BORDERS

Argia sariak ekitaldiaz zuzenean aritu zen jendea, sare sozialetan

BIZIRIK DAGOEN KOMUNITATE BATEN ISLA

@ArantxaIraolaAl

ELKARTASUNA ARDATZ HARTUTA TRESNA KOMUNITARIOAK INDARTZEN JARRAITUKO DUGU DENON ARTEAN, BAITA INFORMAZIO BURUJABETZAREN BIDEAN ERE. ZORIONAK ARGIA!

@OlatuKoop

ARGIA SARIAK EKITALDIAN NAGO ETA HARRO-HARRO SENTITZEN NAIZ ARGIAKO KOLABORATZAILEA IZATEAGATIK. HEDABIDE HISTORIKOA ETA ALDI BEREAN BERRITZAILEA. URTE ASKOTARAKO!

@marikazetari

EGUN ZORAGARRIA BIZI IZAN DUGU GAURKOAN EUSKAL KULTURA ETA HEDABIDEETAN ERREFERENTE DIREN LAGUNEKIN BATERA. ESKERRIK ASKO, BIHOTZEZ, SARI HAU EMATEKO GARAIAN GUREKIN GOGORATZEAGATIK, GUGAN ETA GURE BORROKAN SINESTEAGATIK

Altsasu Gurasoak

Guaidók Venezuelako presidente izendatu du bere burua

GORKA PEÑAGARIKANO @gorkap34

Venezuelako oposizioak bultzatuta, Nicolás Maduro herrialdeko presidentearen aurkako manifestazioa egin zuten 23an. Berria ekitaldiaren amaieran etorri zen: Juan Guaidó Asanblada Nazionaleko eta oposizioko buruak herrialdeko presidente izendatu zuen bere burua, milaka herritarren babesarekin. Botere exekutiboa bere gain hartzen zuela adierazi eta Madurori "joateko" eskatu zion: "Urrats hau egin dut usurpazioa eteteko, trantsiziorako gobernu bat sortzeko eta hauteskunde libreak egiteko".

Juan Guaidók bere burua Venezuelako presidente izendatu eta ordu gutxira, Donald Trump AEBetako presidenteak bere jarrera onetsi zuen berehala. Bere atzetik etorri dira kontinenteko herrialde gehienak: Kanada, Brasil, Paraguay, Kolonbia, Argentina, Peru, Ekuador, Costa Rica, Txile eta Guatemala. Defendatu dutenak berriz, Bolivia, Kuba eta Mexiko izan dira.

GOBERNU "INPERIALISTA"

Herriaren subiranotasunaz mintzatu da Maduro: "Herriak bakarrik jar eta ken dezake presidentea, eta herriak ez du erabaki". Oposizioko kideen jarrera "bidegabea" dela esan du, eta orain Justiziari dagokiola esku hartzea. Dena den, kargua "inolaz ere" ez duela utziko adierazi du.

Fokoa Guaidórengan jarri baino, AEBetan jarri du. Estatu kolpeak AEBen interesak biltzen dituela esan du: "Beraien gobernu inperialistak bere interesak aplikatu nahi ditu Venezuelan". Horregatik, AEBekin dituen harreman diplomatiko eta politikoak hautsi ditu. "Diktadorea naizela diote, baina ni ez nintzen Amerikako Eskolan hezi; bertan formatu dituzte Hego Amerikako eta Karibeko historiako diktadore guztiak", zuzendu zaio AEBei.

EUSKAL HERRIAN, ALDE ETA AURKA

Juan Guaidó presidente izatea eta "bidezko" hauteskundeak, libreak eta unibertsalak, egitea nahi duela adierazi du EAJk. Nicolás Madurori kargua uzteko eta oposizioarekin hitzartzeko eskatu dio. Sortuk aldiz, inperialismoak Venezuelan sustatu duen estatu kolpe saiakera gaitzetsi du. ●

GAIZKI ERRANKA

Vox kritikatu baino lehen, oroit zaitez Telesforo Monzon matxiruloa zela

SANTI LEONÉ
@ororostorm

Ez da lehendabiziko aldia. Abenduan azaldu zigun Iñaki Iriartek, *Diario de Navarra*ko iritzi sailean hain zuzen, ez dela egokia Vox alderdia faxisten zakuan sartzea. Terminologiaren aitzakian gauza funtsezkoagoren bat erakutsi nahi dutenen milikeria terminologikoarekin, Iriartek erraten zigun Voxekoen ideologia ez dela 20ko hamarkadako faxistena. Voxi faxista deitzea ez da historikoki zuzena; alderdia arrakasta izaten ari bada, zentro-eskuinean [sic] inor adieraztera ausartzen ez zen iritzi batzuk ozenki erratera ausartu delako da. Iritziak idatzi ditu Iriartek; ez egiak. Mutil trebea da.

Joan den larunbatean, berriz ere Voxen estakuruan, antifaxistei egurra eman zien Iriartek. Zer pentsatuko ote lukete, galdegiten zuen, ETAren hasierako testuak irakurriko balituzte? Eta ondotik, adibideak: 1962ko testu batean ez dakit zer, Txillardegik behin badakit zer, eta, dena borobiltzeko, Telesforo Monzon matxirulo hutsa zela.

Zutabeak zer pentsatua eman dit, batez ere egilea ez delako Luis Landa xelebrea, EHUn pentsamendu politikoa irakasten duen pertsona serio bat baizik. Zer erran nahi digu Iriartek? Diktadura batean bizi garela, eta Vox horren kontra borroka egiteko sortua dela? Espainia bertze herri baten mende dagoela uste dutela Voxekoek? Vox kritikatu duten guziak terroristak direla?

Edo, beharbada, abendukoa ere kontuan hartuta, Iriartek erran nahi digu Vox alderdi eskuindar normala dela –tira, muturreko samarra, baina inolaz ere baztertua egotea mereziko lukeena–, eta ustezko antifaxistak direla benetan arriskua dakartenak.

Berriki irakurri diot norbaiti muturreko eskuin autoritarioari unibertsitateetan ari zaiola bidea prestatzen. Gero Iriarteren zutabeak irakurri ditut. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

"MENDEKUA JASATEN ARI GARA, OSAKIDETZAKO IRUZURRA SALATU GENUELAKO"

MARTA MACHO ETA ROBERTO SÁNCHEZ, ANESTESISTAK

"Salatu nahi dugunak indarra izan dezan, aurpegia eman beharrean ikusi dugu gure burua", diote, Osakidetzako oposaketetan ematen den iruzurra argitara eman ostean. Babesa eskatu dute, Osakidetzako "traidoreak" bihurtu direlako. "Goi-karguek ez gintuztela ikusi ere egin nahi esan ziguten; hori izan zen lehen erreakzioa". Sabin Etxean "fitxatuta" zituztela ere esan zieten.

ELDIARIO.ES (2019/01/22)

EKONOMIAREN TALAIAN

Migratzaileen greba baten irakaspenak

JUAN MARI ARREGI

Amaitu da Azkoienen Huerta de Peralta negutegietako langileen greba –gehienak migratzaile marokoarrak eta hego amerikarrak–, borroka luze eta mobilizazio solidario askoren ondoren. Enpresaren eta LAB sindikatuaren arteko negoziazioen ostean, akordioak euren aldarrikapen gehienak jasotzen ditu, hala nola kanporatutako bi langile berriz hartzea, hirugarren bati aukera hori ematea auzitegiek hala erabakiz gero, eta laugarren baten kaleratzea bidegabea izan zela onartzea. Egindako 440.000 euroko zorrari dagokionez, enpresak %70 ordainduko du eta lan hitzarmena hobetuko du.

Hainbat irakaspen. Lehena: greba eta mobilizazio solidarioak, erresistentzia kutxa barne, efikazak dira. Egun borrokan dabiltzan hainbat sektoretako langileek, irakaskuntza kontzertatukoak, Navalekoak edo Max Centerrekoak kasu, eredu bat daukate hor. Bigarrena: Nafarroako negutegietan lanean ari diren zientoka migratzaileren prekarietate eta erdi-esklabotza egoerarekin hautsi daiteke. Hirugarrena: Azkoiengo greba, elkartasunak aurrera eginez gero, Nafarroa osora eta Almeria eta Andaluziako beste tokietara ere iritsi beharko litzateke, prekarietatea lakra bat baita. Enpresa batzordeen eta sindikatuen ardura da hori. Laugarrena: migratzaileenganako solidaritateak ezinbestean dakar bizikidetza hobetzea gure herrietan.

"Bertoko edo kanpoko, denok langile klaseko!". Esaldi hori oihukatu dute behin eta berriz grebalariek. Oihu horrek gure herrian eta mundu osoan duen esanahiak kezkatzen ditu patronala eta kapitalismoa bera. Davosen kapitalismo horren munduko elitea bildu da, gizartea bere interesen arabera antolatzeko... Bertako edo kanpoko, Kapital bera da. ●

ANALISIA

Zoparako ere balio ez duten zangoak

JON TORNER ZABALA @jtorner

"Gogor" ari da lanean Enric Mas ziklista profesionala, pasa den denboraldiko hankak izatea helburu. "Txirrindularitzako anorexia?", txiokatu du Egoitz Lizasok argazkiaren gainean. Eskuineko argazkian Wouter Poels ageri da. "Hezurretan", idatzi du @txirrindacash txiolariak. Astebetean, eliteko kirolarien –kasu bietan txirrindularien– "osasuna" islatzen duten bi argazki bolo-bolo zabaldu dira sare sozialetan. Zain-mendixkak eta "zopa egiteko ere balio ez duten beso eta izterrek" mesfidantza sortu dute zale askoren artean, baina ez dira gutxiago kirolarien kemena txalotu dutenak, horrelakoetan ohikoak diren "makina bat haiz" moduko hitzekin. Horixe makina.

Hain justu, *Argaltasuna, txirrindulariaren obsesio berria* artikulua plazaratu du egunotan Dani Luquek *Joan Seguidor* blogean, abiapuntu hartuta amateur mailan azkenaldian azaleratu diren elikadura-nahasmendu kasuak. Gaitz berria denik esatera ez gara ausartzen; duela bost urte, esaterako, Joaquim Rodriguez 'Purito' ziklistak "tentuz jokatzeko" eskatu zion Sky taldeari, txirrindulariek "pisua galdu eta hegan egiten dut" diotenean "ume anorexiko belaunaldia" sortzen ari direlako. Zahar ala berri, bada zer eztabaidatu.

Egia da eliteko kirolarien gorputzak mugara arte tenkatzen direla sarri, bereziki erresistentzia kiroletan (triatloia, txirrindularitza...), kategoriak pisuaren arabera banaturik daudenetan (borroka, boxeoa...) edota "estetika kirolak" deitutakoetan (gimnasia erritmikoa, patinaje artistikoa...). Kasu horietan, ordea, haien osasuna zaindu behar duten –teorian bederen– mediku eta prestatzaileen kontrolpean daude. "Kalean, bestelakoak dira gauzak", ohartarazi du Luquek. Zenbatetan entzun ote dugu gauza bera dopinaren inguruan.

Sare sozialetan saltseatuz gero, kirolarien gorputz "perfektuen" zientoka irudi aurkituko dugu, entrenamenduen, elikaduraren eta errendimendua hobetu dezaketen beste faktore batzuen gaineko datuekin batera. Eta horrek, ispiluari, hurkoari edota telebistan agertzen den idoloari begira bizi den jendarte batean, badu arriskurik. Zentzuz jokatzeko eskatzea alferrikakoa izan daiteke mimetismorako joera sobera sustraitua baldin badago. ●

TWITTER

MIKEL ANTZA, LIBRE

EUSKAL HERRIA. Argazkian, Mikel Albisu euskal preso eta idazlea –Mikel Antza izenez sinatzen ditu literatur lanak–, libre geratu ostean (eskuinetik bigarrena). 2004an atxilotu zuten Albisu, ETAren buruzagi izatea leporatuta. Frantziako Estatuan ezarri zioten kondena beteta, Parisko atxikitze zentro batean sartu zuten. Gero Espainiara eraman zuten eta pasa den urtarrilaren 22an geratu da aske. 14 urte baino gehiago egin ditu Albisuk kartzelan eta denbora horretan Euskal Preso Politikoen Kolektiboko (EPPK) bozeramailea izan da.

BURUJABETZA

%67,8

Hainbat unibertsitatek buruturiko ikerketaren arabera, datozen bi hamarkadetako uneren batean Danimarkatik independizatzearen alde daude groenlandiarren hirutik bi; zehazki, %67,8a.

%70 Botoen %70 baino gehiago bildu ohi dute Groenlandiako alderdi independentistek hauteskundeetan.

Mozal Legea Jaizkibel konpainiari

ARGIA @argia

Hondarribiko Alardeko Jaizkibel konpainia parekideak salatu duenez, Mozal Legea aplikatuz Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak isunak jarri dizkie Oihana Etxebarrieta Jaizkibel konpainiako kapitainari eta Izaskun Larruskain kapitain ohiari.

ARGUDIOAK

Isunen arrazoiak azaldu ditu Jaizkibelek: ibilbidean hainbat lagunek bat egin zutela Jaizkibelen desfilearekin, konpainiaren uniformea jantzi gabe eta "egoera horrek publikoaren txistuak eta oihuak areagotu" zituela. Gainera, irailaren 8an desfile parekidea babesten aritu ziren beste hiru lagunek ere isunak jaso dituzte.

EZ DUTE ORDAINDUKO

Konpainiak adierazi du ez dituela isunak ordainduko. "Sinestezina egiten zaigu guri leporatzea aurretik beste batzuek plastiko beltzen atzean ezkutaturik martxan jartzen duten erasoa. Horiek dira erantzule. Ez Jaizkibel konpainia".

PLASTIKO BELTZEN ATZEKOAK

Urtero Jaizkibel konpainiaren aurkako boikota antolatzen duen Hondarribiko Emakumeak taldeak ere isunak jaso dituela dio Facebook bidez publiko egin duten ohar batean. Haiei ere Mozal Legea aplikatu diete.

MOZAL LEGEA. Euskaraz hitz egiteko eskatzeagatik pertsona bat identifikatu zuen Donostian Ertzaintzak maiatzean. Hilabete batzuen buruan, Mozal Legea aplikatu eta 600 euroko isuna jarri diotela jakinarazi dute. Gutuna gaztelania hutsean bidali diote.

ORIXEN, IKASLEAK KALERATUTA. Orixe ikastetxeko zenbait kidek hezkuntza sistema eta zehazki ikastetxeko ebaluazio irizpideak "bidegabeak" direla salatu zuten urtarrilaren 14an. Orain, prentsaurreko hartan parte hartu zuten bost ikasle hiru egunez kaleratzea erabaki du ikastetxeko zuzendaritzak.

NAIZEN. Chrysallis elkartetik independente, ibilbide berriari ekin diote haur transexualen gurasoek, eta elkarte berria sortu dute horretarako: Naizen. 2015ean Chrysallis elkartea sortu zutenetik, lan handia egin dute transexualitatearen gaia mahaigaineratzen. 100 familia inguru dira gaur egun.

JAKA HORIAK, INORK ESPERO EZ ZITUEN HORIEK

PELLO ZUBIRIA KAMINO @pellozubiria

Urrian agertu ziren mugimendu sozial espontaneo moduan Frantziako Estatuan, sare sozialetatik zabaldutako protestarako deiek bilduta eta azaroaren 17k aurrera larunbatero mobilizatzen dira, hasieran erregaiei Emmanuel Macronen gobernuak ezarritako zerga berrien aurka, baina geroago azken urteotako politika sozial eta ekonomikoak salatzeko: nola zerbitzu publikoen murrizketak, aberatsei zergak arintzea, enpleguaren prekarizazioa…. eta sistema politikoaren aldaketa eske ere bai, Macronek dimititzea eta herri ekimenezko erreferenduma ezartzea. Gobernuaren poliziek, azken arautegi antiterroristak baliatuz, protestalariak oso gogor hartu eta dozenaka zauritu larri (tartean begiak galdutakoak, eskuak mutilatutakoak…) eragin arren, mobilizazioak bizirik heldu dira 2019ko otsailera. Nola interpretatu Jaka Horien fenomeno berezia, batzuek populismo eskuindarraren eta beste batzuek ezkerreko matxinada berri baten erakusle aurkitzen dutena? Hona bi lekukotasun. François Ruffin kazetari, zinegile (*Merci Patron*) eta ezkerreko parlamentarioak kontatuko du azaroko larunbat batean bere eskualdean (Pikardian, zenbait biribilgune blokeatzen ari diren Jaka Horiek kontatu diotena: "Nire larunbat horia". Patrick Farbiaz militante ekologista eta altermundialistak "Jaka Horiak dira lehenbiziko masa- mugimendu sozial ekologista" idatzi du *Reporterre* gunean; egunotan plazaratzen du *Jaka Horiak, agiriak eta testuak*.

Nire larunbat horia

FRANÇOIS RUFFIN

"Banaka hitz egin, ez nabil estereoan!". Flixencourteko (Frantziako iparraldean) *mendebaldeko* barrikadan nago azaroaren 17 honetan, jaka horiz inguratua. Eskuinetik, txofer bat larri gida-baimeneko puntuengatik: "Estresatuta bizi gara, beldurrez, hainbeste radar, 80 km-ko abiadurak, familia pila izorratuta". Semeaz ari zait orain: "Zuzenbidea ikasten zuen, abokatu edo epailetarako, baina orain ezin diogu lagundu, ez zaigu iristen… Auchan-en ari da, a zer frakasoa". Saiatu naiz esaten frakasoa ez dela berea, herrialdearena baizik. Saiatu besterik ez.

Ezkerretik emakume bilo zuriduna, zabor bilketan aritu da txofer, sei umeren ama, 1.013 euroko jubilazioa geratu zaio: "Ogia eta esnea janez bizi naiz, ogia eta esnea… Alaba Troyesen dago, enpresen kudeaketa ikasketetan, ikasle beka gutxitu diote baina alokairua garestitu! Nahiz eta *beste horrek* agindu zuen merketuko zituela. Eta nik ezin lagundu, zeroan nago, hura ikustera joate hutsa gasolina eta peajetan 100 euro…".

Kexuen kaier ibiltari bat naiz goiz honetan, "apuntatu ezazu" esaten didate, "konta'iezu Parisen". Saiatzen naiz. "Ezin lortuz nabil [kalefakziorako] gasoila ordaintzeko 200 euro, eta orain kaldera aldarazi nahi didate". "Nire bizilagunak azterketa teknikoa pasatu behar izan du, oraingoa, 1.500 euroko konponketa. Kotxea ezin mugitu. Negar egiten zuen". "Eskolan ari nintzen laguntzaile eta kurtso honetan zazpi ordu kendu dizkidate. Hilean 400 eurotan ari naiz, finkotasunik gabe, hogei urte daramatzadan arren".

Denak inguruan pilatzen, bultzaka. "Ez pasa marra horia! Bakoitzak bere txanda, posta bulegoan bezala!". Barre egin dute, nik ere bai. Ondo nago jendetzan blai. Hau da nire lekua, nire egin beharra, jendeon artean.

Facebookeko mezuek txokatu ninduten, hasieran. Gisa honetakoek: "17an ez kontatu nirekin! Ez fatxa horiekin". CGT edo SUDeko burkideenak ziren. "Non ziren jaka horiok lanaren legearen kontrako manifestazioen garaian? Jubilatuen aldekoetan, soldaten aldekoetan… non? Gasoila ote da inporta duen bakarra". Ai, ai, ai… ezkerreko esnobismo usain hori, herririk gabe herriak baino gehiago jakite hori…

Ni, nire metodoarekin: lehenik jakin. Entzun. Begiratu. Ulertu, saiatu behintzat. Epaitu baino lehen, oholtzatik edo estudio itxitik. Azken hogei urteotan saiatzen gara ez entzuten, ez begiratzen, horko Frantzia horri, periferiakoari, agintetik eta hedabideetatik urrun dagoen horri, sistematikoki deskalifikatuz: "astapotroa", "arrazista", "populista". Orain, gainera, "*anti-ecolo*".

Eta zer entzun eta ikusi dut nik diputatu naizen eremuko zazpi barrikadak bisitatuz? Hona nire oharrak.

08:00 AMIENS-IPARREKO BIDEGURUTZEA

Oraindik ilun dago. Biribilgunea blokeatzeko motoek ere balio dute. Niretik jaitsita, presaka, adin puska bateko biri galdetu diet: "Zergatik zaudete hemen?". "Flessellestik gatoz". "Bai, baina zerga-

FRANÇOIS RUFFIN
JAKA HORIEKIN BIRIBILGUNE BATEAN.

FRANTZIA HASERRETUA. "MUGIMENDU HONEK IKUSGARRI ETA ENTZUNGARRI BIHURTU DITU GLOBALIZAZIOAREN GALTZAILEAK".

tik?". "A, ez da gasoilagatik bakarrik. Nazka orokor bat da". Horra egun osoan entzun beharko dudan esamoldea [*C'est un ras-le-bol général*].

09:00 FLIXECOURT

Barrikadara iritsi naizenean, Laguna, Scenic edo holako auto handi bat ahalegindu da pasatzen, 76 matrikuladuna (Seine-Maritime). Jaka hori batek kapot gainera jauz eginda *parabrisa* zartatu dio. Nahiko ondo jantzitako gizon gaztea irten eta ausardiaz: "*Partea* egin behar dugu". "Bazenekien ezin zela pasa! Aski huen gaur ez irtetea". "Niri bost". "Diruak dauzkak hik". "Ikasketak egitea aski zenuten!". Berotu ditu bazterrak honekin.

Bste inkesta hartaz akordatu naiz. Nor dago mugimenduaren alde? Obrero eta langileetan %78. Goi karguetan %44. Europako itunaz 2005ean egindako erreferendumean izandako baietz eta ezetzetan bezalatsu.

10:00 ABBEVILLE

Lehenbiziko biribilgunean, irteeran, kamionetan jarrita daukate musika ozen, kantu patriotekin: ezer gaiztorik ez baina garbi Front National girokoak. Besteetan baino motzago moztuta daramatzate hemen ileak, hau da harrera beroa egin ez didaten leku bakarra.

Emakume bat: "Hau da nire bizitzan manifestaziora irten naizen lehenbiziko aldia, 62 urterekin. Duela 15 urte artean iristen zitzaidan ezintasuneko pentsioarekin. Baina orain, ezinean nabil".

Gizon bat: "Ni ere gustora mugituko nintzateke hemendik lan bila, baina ezin, hogeita hamar kilometrotara nago, joan-jina 60 km. Eta gainera Smica kobratzeko [gutxieneko soldata], 1.200 euro, ez da lotsagarria?".

Emakume bat: "Nire bikotekideak autoa aldatu nahi du, bankuak ez dio ema-

ten hilean 1.000 irabazten duelako. Aldiz, Cofidisekoak, horiek bai daude ados. Zer ari zaizkigu? Obreroari ez diotela dirua utzi nahi %2an baina %20an bai?".

Nolan, 24 urte, aita familiakoa: "Lagunduzko kontratuan ari nintzen, ikastetxe batean, eta gauetik goizera eten didate. Gobernua omen da, esan didate, ez duela nahi. Sutan jarri nau, abandonatu nautelako, eta hamabi gaude horrela, hamabi gazte, formazio handirik gabekoak, eskola ez zen niretzako, eta itsuan sinesten nuen Errepublikan… Ofizio hori, maite nuen… Eta orain, indar barik utzi naute, prekarizatuta, galduta. Edo bestela dauzkazu lagunak, delinkuentzia hortxe dago".

11:00 FLIXECOURT

Bazter guztietan, ahaztu baitut esatea, "*Macron, démission!*" pankartak edo txalekoetan 'izorra'i' markatzen duen hatza daude. Hori daukate denek, gasoilarena baino gehiago.

"Guri, lan egin nahi izatekotan, bost urteko esperientzia eskatzen digute. Haiek, haiek bizi beharko lukete bost urtez Etouvien [Amienseko auzune txiro bat] apartamendu txiki batean, Smica kobratuz eta turnoka lan egin ministro izan baino lehen…"

"Macronek, hauteskundeen lehen itzulia irabazi zuenean, luxuzko jatetxean ospatzera zihoala semaforo gorri guztiak saltatu zituen. Eta artean ez zen lehendakari…". "Edouard Philipe, Le Havretik bueltan, 180an zihoan autopistan". "Baina zenbat ministrok daukate auto elektriko bat?".

Bi alditan hasi zaizkit etorkinez. "Calaisen ordaindu egiten diete baimena, jubilatu bati entzun diot". "Hori ez da egia", zuzendu diot. "Elkarte bateko ordezkari batek esan dit". Esan diot: "Miserian bizi den jendea da, eta zure barruan ondo dakizu. Kontua ez da txiroak elkarren kontra borrokan aritzea. Ez dira horiek milaka milioi kostatzen zaizkigunak. Goikoei begira iezaiezu".

13:00 CAMON

Hemengo barrikada daukate Daours herriko Roquette patata frijitu lantokikoek: "Neuk abiarazi dut –esan dit gazte bixar gutxiko galtza gorridun batek– nik berotu ditut lankideak. Kontua ez da gasolinagatik bakarrik, batez ere gure soldatengatik da".

Oso sinbolikoa iruditzen zait: greba egiteko ordez, gatazka soziala lantoki barruan, gatazka atera dute asfalto gainera.

Bistakoa denez, denetik dago mugimendu honetan. Ez da purutasun iraultzailea. Zertan bilakatuko da bihar?

Baina kontua da gaur, dagoenekoz gaur hori existitu dela eta nik sekula ez nuen usteko diputatu izanik horrelako egun bat ikusi behar nuenik, hurbileko abentura hau, motoz korrituz Somme departamenduko errepide hustuetan barrena (ez beti 80 km orduko), hango muino, udazkeneko kolore, urrez margotutako zuhaitz…

Menturaz horixe izan da barrikadetako jendea ere motibatu duena: zerbait gerta dadila, azkenean, Frantzia lokartu honetan. ●

Jaka horiak dira lehenbiziko masa-mugimendu sozial ekologista

PATRICK FARBIAZ

Jaka horiak azaldu direnean, beste militante askok bezala erreakzionatu dut automatismoz. Metropolietatik begiratuta, *bazterren batetik* ateratako jende hauek kotxearen zibilizazioa defenditzen zuten, Le Penek sostengatzen zituen, derrigor izan behar zuten arrazista, sexista eta homofoboak. Biribilgune, peaje eta komertzialguneetako parkinetan biltzen zirenok, zergen kontrako antzinako matxinaden tradizioan, ezin zuten zer ikusirik eduki nik XX. mendeko askapen mugimenduen gramatikarekin ikasitako aldaketa sozialarekin. Jende "zuriok" [*petits blancs*] hain ziren Trumpen jarraitzaileen antzekoak ezen eta erabat urruneko egiten baitzitzaizkidan.

Alabaina, militante ekologista gazteekin hitz egiten hasita, ohartu nintzen okerreko bidetik nindoala, jokatuz beste burgesok –zehazki eskuin zein ezkerreko idazle horiek– bezala, matxinoak karikaturizatuz mozkor koadrila batzuen pareko…

Piztu zitzaidan mugimendu sozial harrigarri hau jarraitu eta ikertzeko nahia, baina baita ere laguntzeko eta bere baitan inplikatzekoa. Berresten baitzuen 2017ko hauteskundeetako olatu *degagista* [*dégage*: zoaz pikutara] baina baita 2016an El Khomri legearen kontrako mugimendua, batik bat Nuit Debout esperientziarekin eta plazen okupazioekin.

Eta jaka horien artean zera ikusten nuen edozein biribilgune, parking edo peajetan… *ezer gabe dauden* jendeen haserrea, ikusezinena, hitz batez, matxinada bat era gordin baina efikazean adierazia. "Aski" esaten zuten, urte luzez bultzaka amildegiraino eraman dituelako etekin ekonomikoetan oinarritu eta beraien bizkar eraikitako sistema ase ezin batek, luzaz ez ikusia egin edo zaborra bailiran tratatu dituztelako ugazabek, bankariek, politikariek eta gobernuko burokratek, agintean egon diren partidu guztietakoek.

Jendeok matxinatzen ziren aldarrikatuz kendu zaien herri subirautza. Mugimendu honek ikusgarri eta entzungarri bihurtzen zuen globalizazioaren galtzaileen Frantzia, langile txiroena, B eta C kategorietako funtzionarioena, erizainena, zainketa langileena, jubilatuena, familia monoparentaletako amena, zorretan itotako nagusi txikiena, autono-

moena, txofer uberizatuena, prekarioena, langabeena…

Baina bitartekaritza orori ezetz esan eta hitza beraiek hartuz, zakurren ipurdiko biribilguneetan bezala telebistetako platoetan, eta beren buruak organizatu eta politizatuz betiko organizazioetatik aparte, matxino berriok uko egin zioten ezarria zitzaien biktima papera jokatzeari, inork agintzeari uko eginda bihurtuz beren eta ondorioz gure etorkizunaren aktore politiko saihestezinak.

Ia gertatu ezinezkoa zen gertakizun honen jatorria kontatu beharra zegoen, interpretazioetatik harago, jakin gabe 2018ko abenduaren ostean zertan bukatuko duen. Horregatik idatzi dut liburu bat matxinadaren lehenbiziko hilabeteetako agiri eta testuak bilduz. Urgentziazkoa zitzaidan idaztea, erakustea jaka horiak direla lehenbiziko masa mugimendu sozial ekologista. Frantzia haserretu honek mahaigaineratzen ditu ekologia politikoaren gai funtsezkoenak: garraioekiko menpekotasuna, hirigintzaren mailakatzea bere gentrifikazioakin txiroenak hiriguneetatik kanporatuz, energia-prekariotasuna, aberastasunen banaketako berdintasun eza. Produkzioa bera jartzen du auzitan, ondasunen zirkulazioari eta kontsumoari erasoz. Ohartu barik, kontsumismoaren ideologia jarri du krisian, hein batean blokeatuz azaro amaieran *Black Friday* eta Eguberrien bezperan zentro komertzialak.

Txirotutako lurraldeetan sustraitu diren jaka horiek uko egiten diote bizimodu zaildu horri, eta aldarrikatzen dituztenean ekonomiaren eta jardueren ber-hurbiltzea [*relocalisation*], zirkuitu laburrak, hurbilekotasuna… auzitan jartzen dute metropolizatzearen eta gentrifikazioaren logika. "Herrian lana, herrian bizi" [*Vivre et travailler au pays*] aldarrikatzen dute 70eko hamarkadako erregionalistek eta ekologistek bezala. Jaka horiak superbibentzia ekologikozko mugimendu bat dira, kapitalismoak ezarri nahi duen joeraren kontra, kanporatzearen kontra: lur lapurrek espultsatzea baserritarrak, deslokalizazioengatik espultsatzea obreroak, beren etxebizitzetatik espultsatzea maizterrak edo etxe jabe txikiak beren zorrak ordaintzeko gai ez direlako, herri txiki eta ertainetatik biztanleak espultsatzea zerbitzurik eta komertzio txikirik gabe lagata, lurraldeetatik multinazionalek baliabide naturalak eta lehen gaiak espultsatzea…

Baina mugimendu hau bere funtzionatzeko eran ere sozial ekologista da. Subjektu autonomo bat sortzea, bitartekari guztiez (alderdi, sindikatu, elkarte) mesfidatu eta bere beharren araberako agenda propio bat ezartzea, funtsean komunalista da lekuan eraginez eta globalean pentsatuz. Mugimenduaren autonomia, auto-eraketarako tresna digitalen erabilera masiboa, bozeramaile hautatu eta zehatzik ez edukitzea, ekintzen dinamika aurreikusi ezina… gogorarazten digute Murray Bookchinek teorizatutako munizipalismo libertarioa eta ekologia soziala. Oroitarazten dute ZADetako antolaketa. Biribilguneetan bizi den anaitasun eta ahizpatasun giro hori, elkarri laguntze hori, elkarri 'gu' izatearen aitortzak ematen duen poz hori, zeinetan emakumeen rola oinarrizkoa den… ikasgai hori ez da etorkizunean galduko, edozer gertatzen dela ere.

Ekologia politikoarentzako jaka horiak aukera bat dira. Behartzen gaituzte eten bat egitera logika *mainstream* nagi batekiko, urrats txikien eta hazkunde berdearen eko-zuriketarekiko. Posible da bestelako ekologia bat, herrikoia. Hitzordua jarri digu Commercy herrian, Bure [zabortegi nuklear baten kontrako ZAD famatuaren herria] inguruan, zeinetako jaka horiek deitu baitute urtarrilaren 26 eta 27rako batzarren Batzarra. ●

Mikel Soto

IRAKURLE KABROI (OHI) BAT

“ESANGO NUKE BAXU GAUDELA, ZENTZU GUZTIETAN”

Hamarkada pasaren ostean jarduna utziko zuela jakin, eta hauxe esan omen zion Boliviako editore kide Jose Antonio Quirogak Mikel Sotori: “Ufa, kaltea eginda dago jada. Ez dira existitzen jesuita ohiak, ez troskista ohiak, ez editore ohiak. Hemendik aurrera liburu-dendetara sartzen zarenean, liburu bat hartzen duzunean, beti egongo zara pentsatzen zer hobetu, zer egin…”. Eta arrazoia eman dio Sotok. Ofizio bat ikasi du Txalapartan eta, utzita ere, berarekin darama.

TESTUA I **DANELE SARRIUGARTE MOCHALES**
ARGAZKIAK I **DANI BLANCO**

Hamahiru urtez ibili zara Txalapartan editore. Pasa den udan utzi zenuen. Zer moduz lur hartzea?
Gogorra. Alde batetik sekulako erritmo aldaketa ekarri dit, eta kostatu zait orekatzea. Gero, fase itxiera bat da, dolu bat izan zitekeena, eta hori ere gogorra da.

Zergatik utzi zenuen?
Ez zait gustatzen editoreen ez idazleen lana mistifikatzea, baina editoreak material nahiko sentiberarekin egiten du lan, eta behar du halako konfiantza maila bat. Mikel Buldainek, oraingo Txalapartako zuzendari edo gerenteak, hainbat aldaketa proposatu zituen, eta nik ez nuen nire burua hor ikusten, aldaketa horiek eragiten zioten nire baldintzei eta ni Txalapartaren barruan eroso egoteari. Nire burua ezagututa, ikusi nuen, halako egoeran, ez nintzela gai izango idazleei konfiantza eta erosotasuna transmititzeko. Eta pentsatu nuen beharbada iritsia zela Txalapartaren zikloa ixteko garaia.

Galde diezazuket ea zer aldaketa ziren horiek?
Ez du merezi, nire ustez.

Ados. Eta diozun material sentibera hori zer dira, idazlea ala idazlanak?
Biak.

Zer zentzutan dira sentiberak?
Mistifikazioan sartu gabe, baina, idazleek zerbait oso pertsonala egiten dute. Badago halako teoria bat esaten duena berdin duela zeri buruz idazten den, beti idazten dela idazleari buruz. Adibidez, Stephen Kingen *Misery* irakurtzen baldin baduzu, izan daiteke terrorezko nobela gotiko bat, edo izan daiteke idazlearen mendekotasuna alkoholarekiko. Literatura ona baldin bada, egia bati buruz ari da, eta egia hori idazleari oso lotuta dago. Editorea da askotan material hori irakurtzen duen lehen pertsona eta material horrekin lan egin behar duena.

Hori kontuan hartuta, zer ezaugarriren jabe izan behar du editore batek?
Nire ustez, giza harremanak menderatu behar ditu. Euskaraz badago hitz oso polit bat: jendetasuna. Bada, nire ustez jendetasuna eduki behar du editoreak. Ulertu behar du idazle guztiak ez direla berdinak, lan guztiak ez direla berdinak. Adibidez, niretzat, Raymond Chandlerren libururik onena seguru aski izango da *The long goodbye* [*Ez adiorik*; Xabier Olarrak itzuli eta Igelak argitaratua]. Bada, bere betiko editoreari ez zitzaion batere gustatu, Chandlerren beste liburuetatik desberdina iruditu zitzaiolako, sentimentalegia omen. Chandler mindu egin zen, eta argitaletxez aldatu. Bere emaztea hiltzen ari zela idatzitako nobela zen... Eta liburua *Ez adiorik* deitzen da… Agerikoa zen guztia, harrigarria iruditzen zait nola editoreak ez zuen ikusi.

Zein da editore baten lana?
Euskal Herriko tamainan, ez da existitzen beste esparru batzuetan existitzen den editore ia-ia purua, zeina bakarrik dedikatzen den originalak irakurtzera, zuzentzera… Gurean editore bat da psikologoa, harreman publikoak, prentsa, kontularia, zuzentzailea… Denetarik pixka bat egin behar du. Testuari begira, hauxe esaten dut beti: editore bat da, batez ere, irakurle oso kabroi bat, liburu bat hartzen duena eta ikusten duena zer interes eduki dezakeen, eta gero zatika irakurtzen doana eta saiatzen dena galdetzen: hau zergatik da horrela? Ezberdin egon zitekeen?

Arantzaren bat geratu zaizu?
Bai. Zer zentzutan?

Publikatu nahi zenukeen zerbait eta ez dena atera…
Egin gabe geratu zaizkidan liburuak? 30etik gora izango dira. Batzuk, gainera, oso arrazoi sinpleengatik: denbora-faltagatik, adibidez.

Txalapartan, zein izan da zure ekarpena edo bereziki landu nahi izan duzun ildoa?
Zaila da erantzutea, zeren betiere ulertu behar da antolakunde baten baitan eta talde baten baitan lan egin dudala, baina, egia da, parte batean, Txalapartan, nirekin bai gertatu zela belaunaldi aldaketa. Zentzu horretan, ekarpenik egin baldin badut, betiere nire lankideekin, beste editoreekin eta talde erredaktorearekin batera, iruditzen zait Txalaparta modernizatu dela-edo, ez bakarrik gai zehatzetan, baizik eta gaien trataeretan ere. Beharbada, oso argi ikusten da feminismoaren gaiarekin. Txalapartak badu halako herri bokazio bat, saiatzen da herri honi tresnak ematen prozesuak ulertzeko, eta, garai batean, irakurtzen nituen queer teoriei buruzkoak-eta, eta ikusten nuen Euskal Herria horretan oso galduta zegoela, eta iruditu zitzaidan zerbait egin behar zela. Hasi ginen gauza batzuk argitaratzen, eta pozik nago Txalapartak egindakoarekin. Gaur egun badaude hainbat bilduma feminista, egiten ari dira itzulpenak, eta iruditzen zait euskal edizioak ere egin duela gauza bera, modernizatu dela horretan. Eta oso pozgarria da hori ikustea eta horretan parte hartu izana.

Oso une berezian hasi zinen Txalapartan lanean: kartzelan egon ostean. Nola oroitzen duzu garai hura?
Kartzelatik ateratzen den jendeari beti gomendio bera ematen diot. Ni oso denbora gutxi egon nintzen, bi urte bakarrik, baina gertatu zitzaidan gauza bat, gerora ere hainbat jenderi gertatu zaiona. Kartzelatik atera eta zenbait hilabetera esaten duzu: ondo nago. Baina ez zaude ondo. Gero, urte eta piko pasa zenean, pentsatu nuen: orain bai banago ondo, lehen ez. Txalapartan hasi baino lehen, Iruñeko Herriko Tabernan ibili nintzen, barran eta sukaldean, eta hori bai izan zen inportantea, jendearekin hartu-emana… hor egin nuen pixka bat goraka.

> ***Torturatua izan eta gero terapia egin nuen, eta esango nuke ez daukadala arazorik horri buruz hitz egiteko***

Politikoki, ilegalizazio-garaia zen, pasa dugun tarte oso gogor bat gatazkari lotuta. Azken partea terriblea izan da alde guztientzat, eta azken bi hamarkadak benetan gogorrak izan dira. Pentsatzen dut horrek ere eragina duela kulturan.

2002an atxilotu zintuzten. Zein izan zen zuen kasua?
Lagun batzuk atxilotu zituzten; lagun horiek ETAko militanteak ziren. Horien ostean, gu atxilotu gintuzten, ni eta nire orduko neska-laguna, Ainara Gorostiaga. Komisaldegian geundela, sekulako jipoia eman ziguten. Nik ez nituen ezta bost egunak ere amaitu, hirugarren egunean forentseak atera ninduen kristo puta bat eginda nengoelako, eta handik ospitalera bidali ninduten. Ospitalean egin nuen astebetetik gora, guztira inkomunikatuta hamaika bat egun egon nintzen. Atxilotu gintuzten talde armatu batekin kolaboratzea egotzita, baina deklaratzera eraman nindutenerako, ez zen kolaborazioa, ez zen kidetza, baizik eta hilketa bat: José Javier Múgica Astibia, Leitzako zinegotziaren hilketa. Nik ordura arte ez nuen horri buruzkorik entzun, ez galdeketan, ez inon. Baina Ainarari sekulakoak egin zizkioten eta berak hori deklaratu zuen, guk egin genuela.

Beraz, ETAko kide izateagatik eta zinegotzi bat erailtzeagatik egon ginen kar-

tzelan. Normalean, ezin dituzu bi urte baino gehiago egin epaiketa gabe, baina euskaldunei gertatzen zaie, edo gertatzen zitzaigun, bi urte egon ondoren, sinatu, eta beste bi urte egiten zenituen, osotara lau urte eraman ditzakezu epaiketa gabe. Gu, ordea, bi urte horien ostean, kalean utzi gintuzten. Oso harrigarria izan zen. Berriro deklaratzera deitu gintuztenean, esan ziguten aspalditik zekitela ez ginela gu izan, hainbat dokumentazio agertu omen zen Frantziako etxe batean eta berton agerian geratzen omen zen ez genuela guk hil. Ainara kalean utzi zutenean kristoren zalaparta sortu zen, zeren galdera oso ebidentea zen: zinegotzi hori erail ez baldin badute, zer egin diete hori aitortzeko? Ibarretxek galdera hori egin zuen, beste askok ere bai, eta zalaparta handia sortu zen, egia esan. Epaiketara iritsi ginen, eta, gaztelaniaz esaten den bezala, *lo comido por lo servido* egitea eskaini ziguten. Abokatuarekin hitz egin ostean, onartu egin genuen.

Horrek zer arrasto uzten dio pertsonari?
Niretzat bi arrasto ezberdin daude: gauza bat da kartzela eta beste bat da komisaldegia. Kartzelaz, izan daitekeen guztiarekin, eta guri gainera garai gogorra tokatu zitzaigun, Aznarren bigarren agintaldiaren amaieran, ez daukat hain oroitzapen txarra. Kideekin egon nintzen, eta gauza batzuetan iruditu zitzaidan bai pertsonalki bai politikoki heltzeko zerbait.

Torturarena ezberdina da, torturarena ez diot inori desio. Bizitzaren beraren mugekin harremanetan jartzen zaitu eta oso esperientzia limitea da. Nire terapia egin nuen horren ostean, eta esango nuke nahiko ondo kokatuta daukadala eta ez daukat arazorik horri buruz hitz egiteko.

Osatu daiteke, orduan?
Bai, eta osatu beharko litzateke. Nik egin nuen terapia eta terapiaren helburua zen, oso modu sinplean kontatuta, komunikazio neuronalak berriro ezartzea, hau da, gutxi gorabehera, eta oso zabar azalduta, zu torturarekin akordatutakoan, ez akordatzeko nola sentitu zinen, baizik eta zer gertatu zen. Eta egia da, askotan, zerbaitekin akordatzen zarenean akordatzen zarela orduan nola sentitu zinen, eta gerta daiteke nik orain zuri zaplazteko bat ematea, eta zu sentitzea umiliatuta, eta abar, eta abar. Baina gertatu dena da nik zaplazteko bat eman dizudala. Orduan saiatzen ginen hori egiten. Eta nik esango nuke orain hurbiltzen naizenean era ezberdin batean akordatzen naizela. Egia

Mikel Soto Nolasco

IRUÑEA, 1978

Historian lizentziatua. Kontatu digunaren arabera, ikasketak hautatzeko garaian, dudatan ibili zen, sukaldaritza ala historia ikasi, eta bigarrenaren alde egin zuen. Orain, ordea, editore jarduna utzi duen honetan, sukaldaritzari buruz idazten hasi da *Zazpika* aldizkarian, ilusio handiz. Besterik ere idatzi du: Unamunori buruzko biografia bat (Elkar, 2006), Iñaki anaiarekin batera, eta kazetariak berak azpimarratu nahi lukeen artikulu bat: *Violencia sexual y tortura* (txalaparta.eus, 2018ko otsaila); torturaren genero-osagaiari buruz.

da akordatzen zarenean ez zarela akordatzen zaplazteko batekin, akordatzen zara lurrean lotuta, tipo bat zu zapaltzen, beste bat barrabiletan kolpatzen... Zerbait oso gogorra. Baina ezberdina da horrekin akordatzea edo sentimenduekin.

Lehen, hari mutur bat utzi dut solte. Esan duzu azken bi hamarkadak oso gogorrak izan direla eta horrek eragiten duela kulturan, nola eragin dio?
Nik esango nuke baxu gaudela, zentzu guztietan, eta kulturan eta literaturan ere bai. Beharbada normala da, pasa dugu zerbait oso gogorra, eta gero gelditu gara oso une arraroan.

Kezka daukazu horrekin?
Ez. Iruditzen zait Euskal Herriak badaukala bere burua berrasmatzeko eta zulotik ateratzeko gaitasun harrigarria, historian zehar frogatu du, eta ez da bakarrik frankismoan egin duena, igual zait, karlistaden ostean egin duena... Bai kezkatzen nau, ordea, hori ukatzeko daukagun joerak. Beti gaude hauteskunde-gauean, beti irabazten. Iruditzen zait zintzoak izan behar dugula diagnostikoan eta iruditzen zait, gaur egun, beldur handia diogula diagnostikoari.

Beldurra diogu onartzeari une baxu horretan gaudela?
Bai. Betiere nire irakurketaren arabera, beste jende batek ez du horrela ikusiko, ez nuke inor iraindu nahi. Baina nik uste dut gauza batzuei buruz hitz egiten dugula post-gaizki bageunde bezala. Alegia, onartzen da gaizki egon garela, edo egoera berezi batzuk bizi izan ditugula, baina hori ez dugu sekula aitortu. Egiaren inguruan gabiltza jira-bueltaka, baina ez dugu erdira sartu nahi.

Besterik esan nahi zenuke?
[Isilunea] Apur bat trumoien kutxa irekitzea da, baina lehen galdetu didazunean ea arantzarik neukan, ez nekien liburuei buruz ari zinen edo gauza orokorrago batez. Baina galdetu didazunean hauxe etorri zait berehala burura. Txalapartan lan egitea berezia izan da, zeren izan da ezker abertzaleko argitaletxe bat, edo behintzat ingurune sozial horri eragiten diona, zeina zabalagoa baita jende batek uste duena baino, eta argitaletxe nafar bat gainera, nafar Erriberaren mugan dagoena, eta euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzen duena. Horrek oso bazterrean jartzen zaitu, baita euskal kulturan ere. Jende batek Txalaparta ikusten du espainol argitaletxe baten gisan, gaztelaniaz ere argitaratzen duelako. Gauza bera gertatzen da beste mila konturekin. Eta hori oso etsigarria da. Euskarazko editorea izanik, zure liburuei leku egin nahi izan, eta jendeak zu ez ikustea, eta ez da fede txarrez egiten dutenik.

Txalapartaz kanpoko adibide bat jartzearren, esanguratsua eta ulertezina iruditu zitzaidan iaz Rikardo Arregi saria Ariane Kamiok irabazi ez izana. Rikardo Arregiri buruzko webgunea egin zuen, sekulako lana.

Eta justu, urteurrena dela-eta, aldatu zuten saria, ezta?
Ez dut esaten saria ematen dutenek propio egin zutenik, Ariane Kamiok ez irabazteko. Ez da hori, inondik ere, baina ez dute Kamioren lana ikusten, zeren *Gara*-n argitaratuta dago, eta, orduan, haientzat da *El País*-en edo *El Diario de Murcia*-n argitaratuta egotea bezala. Eta hori, zoritxarrez, ez da aldatu. Arazo estrukturalak hor jarraitzen du: jende batek jarraitzen du euskal kulturaren parte bati bizkarra ematen, estralurtarra balitz bezala, eta hori oso kezkagarria da herri bezala eta kultura bezala. ●

Iritziak

Demokraziaren tolesturak

KARMELO LANDA
HISTORIALARIA
@karmelolanda

Katalunian tolesten da demokrazia espainiarra. Hartu du hitza Miquel Iceta sozialistak Bartzelonan eta dio Espainia ahalik eta aurrerazaleena, demokratikoena eta pluraltasunaren aldekoena interesatzen zaiola Kataluniari. Une berean, mintzatu da Extremadurako presidentziatik Fernandez Vara sozialista, eta dio Katalunian berehala 155 artikulua ezarri behar dela indarrean, eta TV3 eskuz aldatu, Espainiaren demokraziaren onerako. Ezkondu horiek, biak direnean sozialista Espainia zaleak.

Norbaitek argudiatuko du, kasu hauetan, bakoitzak bere lurraldea ordezkatzen duela, ez bere alderdia. Har dezadan orduan hirugarren adibidetzat sozialista "ez nazionalista" bat, *au-dessus de la mêlée* –Estatu barruko lurralde-nahasmenduetatik gaindi– kokatzen dena. Europa zale porrokatua, nazioartekotasunari begira bizi dena, horregatik guztiagatik europarlamentuaren presidentzian ere kokatu zutena espainiarrek eredu. Har dezadan Borrell: agindua eman die munduan diren enbaxadore espainiar guztiei Kataluniako president Quim Torra jazartzeko, nonahi agertzen dela. Hara noraino hedatzen den tolestura.

Atera kontuak, orain baitatoz Espainiako aurrekontuak. Esango dizute hobe dela horien aurrekontuei baietza eman, bestela besteak helduko direlako gobernura. Esango dizute hau eta bestea, baina bitartean ikusiko dituzu ordezkari politiko katalanak, epaitu aurretik ere kartzelan edo atzerrian dituztenak, epaitegi espainiar berezien aurrera eramaten, eta ikusiko duzu fiskala, gobernu sozialistaren ordezkaria, kartzela zigor larriak proposatzen. Negoziatu hori, ea.

> INBOLUZIOA OMEN DATOR ESPAINIAKO ESTATUAN, ESKUINAREN MUTUR GUZTIEK BAT EGITEN BAITUTE. BAINA ZUZEN AZTERTUZ GERO, INBOLUZIOA DA ESPAINIAREN EGITURARI BERARI EGOKITZEN ZAIONA

Ondoren esango dizute herritar katalanek borrokatu diren guztiagatik ere, ez dutela ezer lortu eta alfer-alferrik dela ahalegin oro, ez bada lege espainiarren azpian, menpe, egiten dena.

Euren arrazoinamendu hori guztia argi entzun dadin, badituzte komunikabide indartsuak, eta horietako batean aterako dizute buruzagi katalan preso baten elkarrizketa, non eta kartzelako lokutorioan burutua (ai ene, lokutorio haiek!) eta kazetariak, lotsarik gabe, galdetzen diola ea nola paira dezakeen kartzelaldi luzea bere bi haur txikiekin egon ezinik, eta jarraian lapurtuko dio, ekinaren ekinaz, titular gutiziatua: aldebakarreko bidea ez ei doa inora.

Falazia hutsean kokatu da demokrazia espainiarra. Ez ditu estatu barruan harrapaturik dituen nazioak onartzen, eta ez die nazioei bide propiorik egiten uzten. Espainiako egituran, nazioen nolabaiteko iraupenak nazioen erabateko ukapena eskatzen du. Kontradikzio gaindiezina da, ez bada nazioek bide propioa hartzen dutela, erabaki beregaina. Horretan dihardute Katalunian.

Inboluzioa omen dator Estatuan, eskuinaren mutur guztiek bat egiten baitute. Baina zuzen aztertuz gero, inboluzioa da Espainiaren egiturari berari egokitzen zaiona, baldin eta Estatu horren menpeko nazio batek, edo klase sozial batek, edo kolektibo indartsu batek demokraziaren bideari ekiten badio. Inboluziorako diseinatua da Espainiako Estatua jatorritik, izan gerraren bitartez, izan errepresioa eta ustelkeria erabiliz. Ezkerra, Espainiaren egiturarekin bat egiten duenean, zentzugabekeria da, termino beretan kontradikzioa, eta laster batean berdinduko da eskuinarekin edo bestela zatikatu eta urtu.

Okerrean dabil, beraz, Miquel Iceta sozialista espainiarra Katalunian, Espainiaren etorkizun demokratikoa eta aurrerazalea ezin baitira Espainian kokatu, Katalunian baizik. Kataluniaren prozesuak, eta Euskal Herriarenak zein Galiziarenak burutzean ezagutu ahal izango da demokrazia. Espainiak demokrazia tolesten duelako, demokraziak Espainia bera uka dezake. ●

Jubilatuen borrokak



ANTTON OLARIAGA

JUNE FERNÁNDEZ
KAZETARIA
@marikazetari

Euskal jubilatuen plataformetako kideei egindako elkarrizketa bat irakurri berri dut. Kazetariari erantzun diote ikasle eta langile gutxik parte hartu dutela manifestazioetan, pentsioen kontua oso urrun ikusten dutelako eta, hortaz, ez direlako nahikoa identifikatzen. Hori irakurri eta Nikaraguaz akordatu naiz.

2018ko apirilean Gizarte Segurantzaren erreforma baten kontrako manifestazioetan piztu zen gatazka politikoa, baina hori ondo ulertzeko atzera egin behar dugu, 2013an garatutako #OcupaINSS mugimendua baita hazietako bat. Urte horretako ekainean, Adinekoen Elkarteak deitutako 15.000 edadetuk Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren (INSS) eraikinen aurrean kanpatu zuten, konplitu zezan nahikoa kotizatu ez zutenei pentsio murriztu bat bermatzea agintzen zuen legea. Ikasle mugimenduak bat egin zuen eta jubilatuen borroka ezagutzera eman zuen #OcupaInss traolaren bidez, 2011n New Yorken antolatutako #OccupyWallStreet-en inspiratua. Astebetez ura, elikagaiak eta sendagaiak erraztu zizkieten gazteek jubilatuei. Errepresio poliziala hasi zenean, ikasleek gehiegikeriak grabatu eta zuzenean emititu zituzten Twitterren bidez. Aliantza horrek garaipen politiko bat lortu zuen: uztailean dekretu presidentzial batek pentsio murriztua aplikatzea agindu zuen.

Garai horretan Bilbo eta Managua artean bizi nintzen eta interes handiz jarraitu nuen #OcupaINSS mugimendua. Inspiragarria iruditu zitzaidan bi belaunaldien arteko elkartasuna: adinekoak ziren borrokaren subjektuak baina gazteen babesa eta komunikazio lana funtsezkoak izan ziren eta errepresioari elkarrekin egin zioten aurre. Ekainaren 22ko gauean Juventud Sandinistako 300 enkaputxatuk Polizia Nazionalaren konplizitatearekin 50 gazte eta 35 zahar tiroka eraso zituztela salatu zuen #OcupaINSS mugimenduak, baita ere hamasei gazte legez kanpo atxilotuak izan zirela eta horietariko seik torturak eta intimidazioa jasan zituztela.

2018ko otsailean Nazioarteko Moneta Funtsak (FMI) Daniel Ortega estutu zuen jubilatzeko adina igo zezan. Apirilean, Gobernuak langile eta enpresen kuotak eta jubilatuen zerga igoko zituela iragarri zuen. Ikasle mugimenduak #OcupaINSS traola berpiztu eta kalera atera zen Nikaraguako hamalau hiritan. Ez zen aldarri isolatu bat, baizik eta Ortegaren politika neoliberal eta autoritarioen kontra egiteko arrazoi berria. Ondoren gertatutakoa jakin badakigu: ehunka hildako, ehunka preso politiko, milaka zauritu, hamar milaka erbesteratu.

Euskal Herriko ezkerreko sektore batek nahiago du geopolitikaz eta Inperioaren kolpe bigunez hitz egitea, FMIren exijentzien kontra aspaldi artikulatutako belaunaldi arteko erresistentzia eredu hau aitortu baino. Asko ikas dezakegu euren kultura politikoaz, Iraultza Sandinistarekin ikasi genuen bezalaxe.

Nikaraguako lagun bati galdetu diot zergatik uste duen ikasleek jubilatuei emandako babesa gurean gertatu ez dela. Esan dit pertsona adinekoak ez direla zahar-egoitzetan edo bakarrik bizi, seme-alaba eta bilobekin baizik, eta hurbiltasun hori dela elkartasunaren gakoa. Gaineratu du gure gizartean zaharrekiko errespetu urriagoa somatzen duela. Badakizue zein den Nikaraguako emakume etorkin gehienen lan aukera bakarra? Gure amamak eta aititeak zaintzea.

* Oharra: artikulu hau idazten ari nintzela pozez jakin dut aurtengo greba feministaren ardatza zaintzaren gatazka izango dela, etxeko eta zaintza langileen esplotazioa salatuko duela eta pentsiodunak batuko dituela. ●

Azken txanpan

ENRIKE DIEZ DE ULTZURRUN SAGALÁ
ITZULTZAILEA

Nafarroako hedabide eskuindarrei kasu egitera, ez dira legealdi akaberara iritsiko ez Uxue Barkos, ez Joseba Asiron, ez Ainhoa Aznarez, Aldaketaren ontziak erreka berehala joko duelakoan. Parlamentuko buruari dagokionez, halaxe izanen da, baldin eta Ahal Dugu taldea hautsi duten Laura Perez eta enparauak oposizioarekin elkartzen badira. Orain Bai izena darabilten parlamentariek ez dute argitu zerk bultzaturik ari diren Ainhoa Aznarez kargugabetu nahian. Iruñeko Udalean ere Orain Baiko lagunek –Aranzadiko zinegotziek– UPN eta PSNrekin batera bota dituzte atzera aurtengo aurrekontuak. Horren ondorioz, bertan behera gelditu dira herritarrekin eta gizarte mugimenduekin adostutako proiektu franko. Aranzadikoek munta handiko bi ardura izan dituzte Udalean, baina bietan ere ederki huts eginik, eta PSNrekin ustekabean azpitik tratua egin ondoren, Asironek udal gobernu taldetik bota zituen, iaz. Orain, hortxe dabiltza, bazterrak zenbat eta nahasiago egoteari onura atera nahian. Gaztetxearen afera ere erabiltzen ari dira Aldaketaren kontra egiteko, gauza jakina baita harreman ona dutela gaztetxeko gazte talde batekin –ez guztiekin–. Bada, gazte horiei garbi eskatu zieten ez onartzeko EH Bilduk proposatutako konponbidea aldameneko udal etxabe batzuetara joateko. Gazteen arteko eztabaida latzen ondotik, talde hori nagusitu zen, hain zuzen ere, eta Rozalejo jauregian gelditzea erabaki zuten. Azken buruan, okupazio horren atzean egungo gazte sektore batzuen arteko lehia ere azaleratu da, Ernairen eta Ikasle Abertzaleen arteko pentsamolde eta estrategia arras kontrakoak, alegia. Gaztetxearen aferak, hori bai, nabarmen tenkatu ditu harremanak Geroa Bairen eta EH Bilduren artean, eta EH Bildu barnean ere ez da une gozoa. Izan ere, baten batek ez du begi onez hartu alkateak Rozalejo eraikinaz hain garbi errandakoa, begi-bistakoa dena, bestalde; hots, etxe horrek ez duela baldintza egokirik bertan bizitzeko edo egoteko.

Hortaz, gisa horretan iritsi gara azken txanpara, azken hiru urtean gauzak bare samar joan ondotik. Orain, ederki zabaltzen ari dira, ez Gobernuan, ez Udalean, deus ere aldatu ez dela dioten ahots interesatuak. Ni ez naiz inola ere iritzi horretakoa. Gabeziak gabezia, hamaika aldiz gehiago nahiago ditut egungo lehendakari andrea eta alkate jauna, ahots interesatu horiek proposatzen dituzten bide antzuak baino. Eta gainera, ziur naiz bi-biek karguari eutsi eginen diotela, gure esku baitago. ●

Maravillas, harri bat EH Bilduren zapatan

ITZIAR BARDAJI GOIKOETXEA
NUP-EKO IRAKASLEA

Aldaketaren legealdia amaitzen ari da. Iruñean, gaztetxearen erronkaren kronologiak Geroa Bairen bildots mozorrodun otso izaeraz eta EH Bilduren kontraesanez hausnartzeko balio digu.

2016an, Geroa Baik bi gaztetxe hustutzea lortu zuen EH Bildu presionatuz. Maravillasen, desalojo kautelarraren saiakerak huts egin eta gero eta hauteskundeak hurbilegi ikusirik, Geroa Baik legez kanpoko hustutzea burutzea aukeratzen du, segurtasunaren auzia bigarren aldiz modu faltsuan erabiliz eta indarkeri polizialaren irudien konplexurik gabe. Barcina estilora eraikina eraitsi ezin duenez, Uxue Barkosek gaztetxea barnetik birrintzen du.

Bi astez Joseba Asiron mahai baten azpian ezkutatzen da eta ozta-ozta esaten du neurrigabeko okupazio polizialaren inguruko hitz pare bat. EH Bilduk beste amore -emate bat nahi du. Ahaztu nahi du autogestioa ez dela marko legalean sartzen eta ez du ikusi nahi Geroa Baik egiten duena. AHTren gola sartu diote, eta Unzu makro ostatuarena ere bai. “UPN okerrago da” mantrari heltzen zaio, Geroa Bairi marra gorririk jarri gabe.

Eta nik ez dakit nondik aterako dudan bozkatzera joateko motibazioa. ●

Oka

OIER GUILLAN
ANTZERKIGILEA

Ordenagailuaren aurrean paratu naiz. *Argia*-rako artikulu bat idatzi. Zeri buruz? Zeri buruz idatzi ez jakiteari buruz? Tipikoegia? Zeren arabera jartzen dira martxan erraiak, bilisa hitz bilakatu behar denean?

Antzerki edo literatura lanetan, kasu, eduki eta gaien hautuak nire kasuan ez dira beti kontzienteak izan. Ez datoz gogoeta sakon batetik, dokumentazio lan batetik edo helburu zehatz bat duen ikerketa asmo batetik. Motorra askoz sinpleagoa da, tontoagoa, humanoagoa: nire hautuak oka egiteko beharretik datoz, eta oka egitea eragiteko maitasun asmotik. Zergatik? Ez dakit. Pentsatzen hasiz gero agian topa nezake, edo asma nezake, arrazoi bat. Baina ahalegina egin beharko nuke horretarako. Ahalegina egin dezaket. Merezi du egiteak? Ez dakit.

Beti iruditu zaizkit sormen lanak haiek sortu dituzten sortzaileak baino interesgarriak. Oso pozik nago, esker oneko sentitzen naiz, gure taldeko lanek izan duten harreragatik edo oihartzunagatik. Berdin dio oihartzun hori handia edo txikia izan den, berdin dio zerekin konparatzen duzun, pertsona bakar baten arreta eta energia konpartitzea opari erraldoia da. Une honetan zu lerro hauek irakurtzen egotea, adibidez. Bestetik, inori sormen lan batek sormen lan propio bat egitea eragiten badio (pentsamendu intimoaren mailakoa bada ere) itzela iruditzen zait. Nik neuk maite dudalako beste norbaitek (musikari batek, zinegile batek, antzerkigile batek edo batzuek) niregan mugimendu hori sortzea lortzen duen unea: bere lana jaso ahala neurea propioa ari naiz sortzen, harenak kasik garrantzia galtzen duen arte.

OKA EGITEKO BEHARRA DAGOEN GARAI BATEAN IDAZTEN DITUT NIRE TESTUAK: OKA POETIKOA. OKA EGITEKO BEHARRA DUEN JENDARTE BATEN BAITATIK IDAZTEN DITUT NIRE TESTUAK: OKA POLITIKOA

Sormen lanak sortzailea bera gainditzen du gehienetan. Nik idazterakoan neuretik jartzen dut, noski, baina ez soilik. Beste hainbat eragileren lana filtratzen zait etengabe, naizen munduak idazten du diodana neurri handi batean: haurtzaroak, maite ditudan pertsonek, kafetegietako solasaldiek, jasotako kritikek eta probokazioek, irakurritako liburuek, titularrek, lagunek barkatu dizkidaten hanka sartzeek, publikoak ukatutako txaloek... Naizen munduak idazten du nirekin batera idazten ari naizen artikulu hau bera. Beti sinatu behar lirateke lanak honela: "Egilearen izena eta bere testuingurua", "Egilearen izena eta irakurri dituen liburuak", "Egilearen izena eta bere lagunekin izandako solasaldiak". Edo izenik ez.

Oka egiteko beharra dagoen garai batean idazten ditut nire testuak: oka poetikoa. Oka egiteko beharra duen jendarte baten baitatik idazten ditut nire testuak: oka politikoa. Eta garai honek, jendarte honek, besteak beste, arrazakeria eta generoari loturiko gaietan ditu erraiak, bilisak, egotzi beharreko hondakinak. Neuk ere oka egiten dut jendarte horren baitatik, askotan nola, zergatik, nondik, norantz jakin gabe.

Baina oka egin osteko lasaitasuna erdiesteko beharrez. ●

ARGIA
SARIAK 2019

Familia argazkia atera dugu mahaian eseri aurretik. Baina kostako zaizu erretratuan topatzea. Horrelako argazkietan beti tokatzen zait aurre-aurrean jartzea, "txikiak aurrean, mesedez" esaten baitu usu argazkilariak. Ez dute bada, gauza bera esaten kontzertuetan! Oraingoan, ordea, ez diot kasurik egin, eta atzealdean jarri naiz, ezkutuan, sarituei protagonismoa eman behar zaienaren aitzakia merkearen gibelean gorderik.

TESTUA I **ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA**
ARGAZKIAK I **DANI BLANCO**

Nola hasi 30. Argia Sariak Felix Sarasola laguna gogoratu gabe. Hilberriak Txartel, Txitxardin Beltza eta Atxega Jauregia jatetxeetan sariak antolatzeko bidea erraztu zion ARGIAri. Atxega Jauregiko atea berak zabaldu duela sentitu dugu. Jatetxea, beti bezain elegante, harriz jantzita.

Protokoloak oraindik ere bere lekutxoa izaten segitzen duen bazkari hauetan konpainiak ere hartzen du gonbidatu bakoitzaren buruan toki txiki bat. Eta mahai-bueltako aurkezpenak egin ostean, hasi da bazkaria. Politak dira plater baten eta bestearen tartean sortzen diren elkarrizketak; aurretik egindako aurkezpenean bakoitzak emandako izen eta jatorriaz harago, hasi gara sakontzen dauzkagun proiektuetan, honetaz eta besteaz dauzkagun iritzietan... Eta polita da, aldi berean, inguruko mahaietara begiratu eta horietan izaten ariko diren elkarrizketak asmatu nahian ibiltzea. "Horrek irribarre egiten dio ondokoari, eta gustura ariko dira", pentsatu dut; "hark, berriz, muturra okertu dio parekoari, eta ez zitzaion gustatuko zer esan dion".

Elkarrizketak jarraitzen du kafe ordura arte. Kafearekin batera hasten baita sari-banaketa. Aurtengoa pixka bat bereziagoa izan da bi arrazoirengatik: batetik, zuzendaririk gabeko Argia Sariak izen direlako; eta bestetik, 100. urteurrena aitzakia, prestatzen diharduten mende bateko ibilbidea biltzen duen ikus-entzunezkoaren aurrerapena eskaini digutelako. Eta horren ondotik, bai, sariak. ARGIAko lantaldeak sariaren argudioak eman eta sarituek beren hitzak eskaintzeko ordua.

Azken txaloekin apurtzen da guztiz protokoloa, eta modu naturalagoan hasten da jendea eserlekuetatik jaiki eta ondoko lagun zaharrari kasu egitera joaten, sarituari zorionak ematen, eta besteren bat, nola ez, egun edo gaua luzatzen lagunduko dion gintonic-a eskatzeko barrara gerturatzen. ●

MENDE BETEKO SARIAK

2020 litzateke zenbaki politagoa urteurren borobilak ospatzeko, eta batzuek iritziko dute "beti aurretik", besteek "beti diferente", eta ondokoek "beti kontrara"; baina arrazoia dena dela ere, Argiarentzat ospakizun urtea 2019a da. 100 urteko esperientziarekin, sekula baino gazteago. 30. Argia Sariak ere ospakizunera batu dira.

IRRATIA
JUAN CARLOS ETXEGOIEN JAUNARENA, *XAMAR*

Ez dugu denbora askorik galdu Argia Sariak zer diren esplikatzeko azalpenetan. Aski ezaguna du komunikabidea. Orain urte batzuk kolaboratzaile ibilitakoa da Xamar Asisko Urmenetarekin batera txiste kontatzen, komikiak egiten... Beti euskarari oso lotua, hainbat lan argitaratuta ditu gaiaren inguruan; eta gaur egun Bilbo Hiria irratian aritzen da gure hizkuntzaren historiaz edo gure historiaren hizkuntzaz *Euskara Jendea* irratsaioan.

Azken hori da sariaren arrazoia. Eta, agian, baita bere aurreko lanen errekonozimendua ere. "Noiz arte segi behar dugu Amazonia, baleak eta euskara salbatu behar ditugula aldarrikatzen? Euskara hiztegi eta gramatika bat dauzkagunetik salbatuta dago, euskarak ez du sufritzen. Sufritzekotan, euskaraz bizi nahi dugunok sufritzen dugu". Horrela ulertzen du euskararen egoera Xamarrek. "Kontatzen digute artzain hizkuntza bat dugula, herri isolatu bat izan garela, basak... baina Europarako pasabidean gaude, Pirinioak bukatzen diren lekuan. XVIII. mendeko notarioen idatziak badira euskaraz Lapurdin". "Topikoetan bizi gara", dio. "Gure historia konplexurik gabe kontatzen hasi behar dugu", azpimarratu dio kazetariari.

Bere alea jartzen ari da bide honetan, egiten duen lan bakoitzarekin.

PRENTSA
GARI GARAIALDE

Geroz eta bisualagoa da egunerokoa. Geroz eta gehiago elikatzen gara irudietatik, informazioak daraman abiadura honetan albiste bakoitzean segundo gutxi batzuk bakarrik pasatzen ditugu, eta argazkietatik ahalik eta datu gehien jasotzen ahalegintzen gara. Guk argazki batetik ahalik eta datu gehien jasotzeko egiten du lan Gari Garaialdek. Fotokazetaria, bera. Euskarazko fotokazetaria.

Baina irakurlearen begiak geroz eta azkarrago argazkira joaten diren neurri berean joaten al dira kazetarien buruak irudiari eman beharreko garrantziaz jabetuta, testua bezainbat lantzera erreportajearen atal hori? Hori du zalantza Garaialdek. "Guk geuk ere sarri ez dugu gure burua kazetaritzat".

Irunen dauden migratzaileen egoerak bildu ditu kamerarekin, eta lan horregatik jaso du Argia Saria. "Hasteko, dokumentatzea zen helburua, gure etxe azpian gertatzen ari zena jasotzea. Ondoren horrekin zer egin gerora pentsatu dut", dio argazkilariak. "Eguneroko kazetaritzak martxa bat darama, abiadura bat, eta horrelako gai delikatuek denbora gehiago eskatzen dute lana ondo egiteko; oso tentuz ibili behar da argazkiak ateratzerakoan, informazio handia behar da, gertutasuna, eta horrek denbora eskatzen du", azaldu du.

IKUS-ENTZUNEZKOA
ASKEKINTZA, *GUREAN* DOKUMENTALAGATIK

Sokamuturrean alde batetik bestera korrika ari diren bigantxak, lepotik zintzilik dirauten antzarak, ume andanaren aurretik ihesean doazen txerrikumeak, deman ari diren zaldi eta idiak…

Nork ez du Euskal Herriko txokoren batean edo bestean horrelako irudirik ikusi? Gure festa eta ospakizunetan hain onartuta dauden praktikak beste ikuspuntu batetik aztertzeko helburuarekin egindako dokumentala da Askekintza taldeak sortutako *Gurean* ikus-entzunezkoa. Eta horregatik jaso du saria.

Espezismoaren aurkako taldea "oso pozik" agertu da egindako lanarekin eta izandako erantzunarekin. "Praktika hauen inguruan eztabaidatzeko garaia da", adierazi dute. "Gure jaietan sarri egin izan da beste hainbat zapalkuntzaren kontrako aldarria, eta espezismoaren aurkakoa ere egin beharra dago. Tradizioaren edo dibertsioaren aitzakian animaliek jasaten duten tratuarekin bukatzeko garaia da", azpimarratu du Maialen Sagues taldeko kideak.

"Eskertzekoa da ARGIAk azken urteotan gai hau lantzeko hartutako jarrera, eta eskertzekoa, noski, saria".

INTERNET
"INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMEN MAPA" WEBGUNEA

Zein garrantzitsua den idatzita jasotzea, argazkietan biltzea, dokumentatuta geratzea. Ahanzturan ez erortzeko. Gertatutakoen memoria ez galtzeko. Izenak eta izanak gordetzeko. Izen eta izan asko baitaude 2003tik joan direnak. Joan direnak bai, baina ahaztu nahi ez direnak. 98 emakume eta 11 ume, indarkeria matxistaren biktimak.

Mapa birtual batean bildu dituzte izen eta izan horiek guztiak, *Berria*k martxan jarritako "Indarkeria matxistaren biktimen mapa" webgunean. 109 puntu gorri. Gainean klik egin eta kasuaren inguruko informazioa emateko.

"Orain hiru urte izan zuen ideia Mikel Peruarena Ansak", azaldu digu Maite Asensio *Berria*ko kazetari eta webgunearen arduradunetako batek. "Sari hau lan horren aitortza da, erakusten baitu zein beharrezkoa zen horrelako webgune bat martxan jartzea", jarraitu du. "Ziur asko, tamalez, oraindik ere beste izen eta izan batzuk gehitu beharko ditugu mapan, indarkeria matxistak gure zazpi lurraldeetan beste biktimarik uzten badu. Baina mapa bera ere garatzen jarraitu nahi dugu, kasu bakoitza gehiago landu, dagoen informazio guztia laburtu, beste gune batzuetarako estekak gehitu...", azaldu du Asensiok.

SARIDUNAK
Goian, ezkerretik eskuinera: Aritz Leoz (Altsasuko Gurasoak), Juan Carlos Etxegoien *Xamar*, Miriam Urkia (Euskaltzaindia), Iñaki Dorronsoro (Eusko Ikaskuntza), Pello Urzelai (*Berria*) eta Maialen Sagues (Askekintza). Behean, ezkerretik eskuinera: Antton Ramirez, Isabel Pozueta eta Izaskun Etxeberria (Altsasuko Gurasoak), Gari Garaialde, Maite Asensio (*Berria*) eta Ion Cerezo (Askekintza).

SUSTAPENA
ALTSASUKO GAZTEEN GURASOAK

2016ko urriaren 15 goizaldea ezagun egin da Euskal Herriko etxe askotan. Altsasu. Ondo ezagun dute, bai, gau hura zazpi etxetan, 800 egundik gora baitaramatzate zazpi gaztek ordutik kartzelan.

Kaleak bete dira elkartasuna adierazteko eta askatasuna eta justizia eskatzeko. Altsasuko Gurasoak plataformak jaso du aurtengo sustapeneko Argia Saria, eta Isabel Pozuetak egin ditu adierazpenak. "Poz eta ohore handia da guretzat sari hau jasotzea. ARGIA erreferentetzat dugu, kazetaritza independente eta kritikoa egiten duen euskarazko komunikabidea delako", egin digu sarrera. Jakitun dira aspaldian Iruñean egin den mobilizaziorik jendetsuenetako bat antolatzeko gai izan direla –joan den apirilean 85.000 lagun bildu ziren hiriburuan gazteen askatasuna eskatzeko–, eta sentimendu kontrajarriak adierazi ditu: "Batetik dago injustizia izugarria, baina bestetik horrelako mobilizazioetan kristoren elkartasuna, babesa jasotzen dugu".

Saria eskaini diote Altsasuko herriari "erakutsitako duintasunagatik", babesa adierazi duen jende guztiari eta beraien alboan egunero lanean diharduten plataformako kideei.

MEREZIMENDUZKOA
EUSKALTZAINDIA ETA EUSKO IKASKUNTZA

ARGIA ez da mendeurrenean murgilduta dagoen bakarra. Merezimenduzko saria eman nahi izan zaie aurten 100 urte bete dituzten Euskaltzaindiari eta Eusko Ikaskuntzari. Euskal kultura eta euskara batu, zaindu eta zabaltzeko lanean dihardute, asmoz eta jakitez.

Euskal Herri osoan hedatutako zientzia-erakundea da Eusko Ikaskuntza, eta 18. kongresuan aurkeztutako *Liburu Zuria* dute datozen urteetarako ardatz, Iñaki Dorronsoro erakundeko lehendakariaren hitzetan. 133 proposamen biltzen dira bertan, eta "lerrootako proposamenak gauzatzen joatea da Eusko Ikaskuntzaren xedea, beti Euskal Herria bere osotasunean, zazpi lurraldeak kontuan hartuta".

Euskaltzaindiak ere etorkizunari begira jarri nahi du mendeurrenean. "Euskaltzaindia esanda, batek euskara batua erantzungo dizu, besteak euskararen arau eta gramatika, hurrengoak euskarazko tituluak... eta bai, hori guztia gure lanaren parte da, baina ez gara euskara batua bakarrik", azaldu digu Andres Urrutia euskaltzainburuak: "Euskal Herriko erakunde guztietan erreferentzia instituzionala lortu dugu, berdin da jatorria, gertutasun politikoa, adina, euskalkia... Denentzat erreferentea den erakundea izatea lortu du Euskaltzaindiak, eta gaur egungo tresnen bidez gure hausnarketa, lan eta proiektuak gizarteari itzultzea da helburua". ●

1

2

3

1. Pello Zubiria, Gorka Bereziartua, Xabier Letona, Miren Osa, Luken Goia, Joxe Mari Ostolaza, Elixabete Garmendia. / **2.** Danele Sarriugarte, Mikel Asurmendi, Joseba Larratxe. / **3.** Bouba Diouf, Gari Garaialde, Xabier Letona. / **4.** Luken Goia, Iñaki Uria, Odile Kruzeta. / **5.** Estibalitz Alkorta, Mikel Arregi, Izaskun Landaida. / **6.** Nerea Elias, Maria Ajuria. / **7.** Ion Cerezo (bizkarrez), Mikel Garcia, Joseba Larratxe, Ane Mendizabal, Olatz Korta. / **8.** Aitor Furundarena, Antton Mendizabalen oroigarriak alboan dituela.

IPAR EUSKAL HERRIKO LABORANTZA

Egitura publiko baten proposamena plazara

Pirinio Atlantiarretako departamenduko Laborantza Ganberako bozketa garaia dela eta, Ipar Euskal Herriarentzako egitura publiko propio baten eskaera plazaratzen ari da ELB sindikatua. Eskaera baino gehiago, Euskal Herriko Laborantza Ganbara eta Arrapitz federazioarekin batera marrazturiko Laborantza eta Elikadurarako Egitura Publikoaren proposamena du esku artean. Aurkari duen FDSEA sindikatuak haatik, ez du erakunde berri horren beharra ikusten.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN @Jenofa_B



Otsailaren 6an jakinen dira Frantziako Estatuan sei urtero egindako Laborantza Ganberetako bozen emaitzak. Anartean, sindikatuak kanpainan dira eta laborariek urtarrilaren 31 arte dute bozkatzeko. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako laborariek departamenduko Laborantza Ganberarako aulkien osaketa bideratuko dute, Biarnoko nekazariekin batera. Aulkien osaketa bideratuz, lurralderako laborantza eredua dute hautatzen bi modelo antagonisten artean.

EGITURA "AHAL BEZAIN IREKIA" IZAN BEHARKO DUELA GOGOAN HARTURIK, OSAKETA ANITZA DUTE MARRAZTURIK SUSTATZAILEEK: LABORANTZAKO SEKTOREKO ERAGILE GUZTIEN PRESENTZIAZ GAIN, HAUTETSI ETA JENDARTE ZIBILARENA ERE BAI

Gune horrek ez du ordea Ipar Euskal Herriko lehen sektorearen errealitatea islatzen: 2013ko emaitzei segiz, ELB Lapurdi eta Nafarroa Beherean lehen indarra izanda ere –Zuberoako emaitzak ezin jakin, Biarnoari loturik izaki–, departamenduko emaitzek finkatzen dute aulki banaketak, hots, FDSEAk ditu betidanik giderrak atxikitzen. Are gehiago, bozka sistema erdi-proportzionalarengatik, ELB zein Coordination Rurale ez dira terrenoan duten pisuaren arabera ordezkaturik. Aulki kopuruaren erdia gehi bat lehen indarrarentzat dira eta gelditzen direnak guztien artean proportzionalki banatzen dira: Hamasei aulki ditu gaur egun FDSEAk, ELB eta Confederation Paysannek lau eta Coordination Rurale-k bakarra –ikuspegi eta egitasmo alternatiboei tokirik ez zaienez uzten, 2001etik 2013ra aulkiak hutsik mantentzeko hautua egin zuen ELBk; azken kargualdian haatik, ordezkari bakarra bertaratu ohi du–.

Nagusitasuna duen sindikatuaren arabera dabil aitzina, beraz, departamenduko Laborantza Ganbera. Hori problematikoa da, Biarnoan eta Euskal Herrian ez baita laborantza mota bera. Salbuespenak salbuespen, Biarnokoarekin alderatuz, mendi aldekoa eta etxalde ttipi zein ertainez osaturikoa da Euskal Herriko laborantza. Bertako etxaldeen %80 dira kalitatezko desmartxa batean.

INTENTSIBOAREN BABESLE

Neke zaio hori onartzea ELBri, ondorioak larriegiak dituelako. Laborantza herrikoiaren alde ari da hau, FDSEA ordea laborantza industrialaren alde. Etxalde ttipi eta ertainen ahotsa izan nahi du ELBk, FDSEA berriz zerealista zein ekoizle handien zerbitzuko izan ohi da. Alta, laborantza guztiak laguntzeko hor direla diote FDSEAko ordezkariek, ELBkoek gezurtatzen duten adierazpena. Egia ala gezurra, kontua da objektiboki, ezinezkoa dela bien laguntzea, laborantza intentsiboaren alde egiteak laborantza ttipia hiltzen duelako. Hori horrela da eta adibide gehiegi ditugu gure inguruan hori baieztatzeko.

Axola hori zuten parte handi batean Ipar Euskal Herrirako Laborantza Ganbara propioaren eskakizunaren oinarrian ELBko kideek. Hamarkadaz hamarkada, hauteskundez hauteskunde, aitzina eramandako aldarrikapena eta duela hamalau urte Euskal Herriko Laborantza Ganbara (EHLG) sortuz bete nahi izan zutena. Lehen aldikoz Ipar Euskal Herriko lehen indarra izan zen 2001ean ELB eta Frantziako Gobernuak egitura propioren eskakizun zaharrari ez zionez baikorki ihardesten, haien eskutik sortu nahi izan zuten 2005eko urtarrilaren 15ean. Auziz auzi, trabaz traba aitzina segitu eta paisaian ontsa kokaturik da elkartea, laborantza herrikoiaren alde ari diren eragile nagusien artean. Laborari, kontsumitzaile, egitura publiko zein elkarte, edozeinen partaide izaten lortu du hori. Gazteen instalazioari buruzko zenbakia da horren erakusle: bai ala bai departamenduko egitura publikotik pasa behar izaten du etxalde batean plantatzen denak. Azken zifrei segi, hauetako %44k dute ondotik EHLG elkartera jo instalaziorako laguntza eske.

Baina ez da erakunde publiko... eta defenditzen duen eredua departamenduko egitura publikoak ez du hein berean laguntzen. Tokiko errealitateari erantzungo liokeen tresna baten aldarria mahai gainean da, beraz, berriz ere:

Oihaneder euskararen etxean

[ERAKUSKETA]
'Soka'
2019/02/08, 20:00

[ILUNABARREAN DANTZAN]
Agnes Ceccon
2019/02/10, 19:00
Dantza tailerra

[IKUSKIZUNA]
'Kolorez kolore'
2019/02/17, 12:00 eta 18:00
KunArte - Paraiso antzerkia
2-6 urte bitartekoentzat

Gazte Sortzaileak

[IKUS-ENTZUNEZKOA]
"Oskola"
Youtuben Gasteizko musikariei eskainitako kanal berria
Urko Saenz de Buruaga
2019/03/22, 20:30
Oihaneder Euskararen Etxea

[ITZAL TITEREAK]
"Inkuren itzala"
Eñaut Gorbea
2019/04/11, 18:30
Aldabe gizarte etxea

[PERFORMANCE]
"Tripak: huts bete hots"
Eguzki Donellan eta Haizea Beruete
2019/04/04, 20:30
Oihaneder Euskararen Etxea

[KOMIKI MUSIKATUA]
"Zer hartu ontzitik itsasoa harri bihurtzen bada"
Miren Narvaiza
eta Joseba Baleztena
2019/05/18, 18:00
Aldabe gizarte etxea

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

EHLG aurkezpena

Laborantza eta Elikadurarako Egitura Publikoaren proposamena zabaltzen dabiltza ELB, EHLG baita Arrapitz federazioa. Laborantzako sektoreko eragile guztiez (ELB zein FDSEA, Euskal Herriko Laborantza Ganbara zein departamenduko Laborantza Ganbera,...) baita hautetsi eta jendarte zibilaren ordezkariez osatuko litzatekeena: "Laborantzaren gaia denen ardura delako".

TESTUINGURU BERRIA

Proposamena orain plazaratzea ez da erabaki hutsala. Azken urteetan eta datozenetan, lurralde antolaketan izandako aldaketak kontuan harturik, egitura lortzeko garai egokia iduritzen zaie. Batetik, Euskal Hirigune Elkargoa 2017an sorturik, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa biltzen dituen instituzioa hor da, garapen ekonomikoari bideratu eskumenean laborantza txertaturik gaine-ra. Funtsean, Pauen lortuko dituzten aulkiak hutsik utziko ditu berriz ere ELBk, koadro instituzional propioa duelako orain Ipar Euskal Herriak eta hau delako bere lan esparrua.

BIARNOAN ETA EUSKAL HERRIAN EZ DA LABORANTZA MOTA BERA. SALBUESPENAK SALBUESPEN, BIARNOKOAREKIN ALDERATUZ, MENDI ALDEKOA ETA ETXALDE TTIPI ZEIN ERTAINEZ OSATURIKOA DA EUSKAL HERRIKO LABORANTZA; HAIETAKO %80 DIRA KALITATEZKO DESMARTXAN

Gainera, arlo sozialean duen eskumenaz aparte, departamenduak geroz eta pisu gutiago ukanen duela sendi da. Laborantza Ganberei doakienez, eskualde mailan antolatuko dira geroz eta gehiago, ordezkaritzak ukanen dituztela tokika, harreman zuzena mantentzeko. Departamenduko Laborantza Ganberak Donapaleun ireki adarra daukate FDSEAkoek lotura hori segurtatzeko gune gisa: "Donapaleuko toki hori azkartu dugu, nahi dugu oraino gehiago azkartu, hori da Euskal Herriko Laborantza Ganbara ofiziala eta Euskal Hirigune Elkargoak hori behar du ezagutu, bihar hor beharko dugu denek lanean ari izan", zioen Patrick Etxegarai FDSEAren hautagaietako batek, Euskal Irratiek eta Kanaldudek antolatu eztabaida publikoan [Argia.eus-eko multimedia atalean ikusgai]. Baina, ordezkaritza erdi-proportzionala dela eta, alde bakarrera doan laborantza politika garatzea deitoratu zion Beñat Molinos ELBkoak. "Departamenduko Laborantza Ganberaren finantzamendua denek pagatzen dugu, aurrekontuaren %60 lur-zergetarik duzue! Hori alde batera doan politika bat plantan ezartzeko, bestea kontutan hartu gabe".

Hori horrela, egitura "ahal bezain irekia" izan beharko duela gogoan harturik, osaketa anitza dute marrazturik sustatzaileek: laborantzako sektoreko eragile guztien presentziaz gain, hautetsi eta

EHLG aurkezpena

ELB

Otsailaren 6an Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako laborariek departamenduko Laborantza Ganberarako aulkien osaketa bideratuko dute, Biarnoko nekazariekin batera: lurralderako laborantza eredua dute hautatzen bi modelo antagonisten artean. Beheko irudian ELBko hautagaiak.

jendarte zibilarena ere bai. Tokiko laborantza eta elikadura politika gogoetatzeko eta erabakitzeko orduan, Euskal Elkargoaren mintzakidea litzateke egitura berria.

PROPOSAMENA PARISERA

Proposamena eragile ezberdinei aurkezturik, ahal bezain fite egina ikusi nahi lukete. Baina, Euskal Herriko eragileen adostasuna ez da nahikoa izanen, horrelako egiturarik ez dagoenez gero, legea moldatu beharko delako. Hots, Parisen nahikeria ezinbestekoa izanen dute, benetako egitura publiko izateko bidean.

Eskakizuna Emmanuel Macron Frantziako presidentearen kontseilariei aurkeztu berri die Jean-René Etxegarai Euskal Hirigune Elkargoko presidenteak. Dudarik gabe, egitasmoaren sustatzaileek begi onez ikusiriko urratsa. Itxaropentsu izaten segitzen dute ELB, EHLG zein Arrapitzekoek: Parisen baimena ukan bitartean, gaurdanik has daitezkeelako horrela antolatzen eta Euskal Hirigune Elkargoaren mintzakide izaten. ●

ARGIAK LORTURIKO DOKUMENTUA

IRREGULARTASUNAK LANBIDE HEZIKETAREN FINANTZAZIOAN?

Lanbide Heziketako irakasleak ez dagozkien funtzioak egitera bultzatzen ditu Jaurlaritzaren programa batek, ARGIAk eskuratu duen dokumentuaren arabera. Irakasleek proiektuak saldu behar dizkiete enpresei, eta egindako proiektu bakoitzagatik enpresak ikastetxeari ordaintzen dio zuzenean, ikastetxeak autofinantzatuz eta gurpil arriskutsuan kateatuz. Gainera, lan horien fakturan %25eko beherapena egin behar diete ikastetxeek enpresei, merkatuari konpetentzia desleiala eginez. Jaurlaritzak berak ere diru publikoz saritzen du programa: zenbat eta proiektu gehiago saldu, orduan eta baliabide ekonomiko eta pertsonal publiko gehiago jasoko ditu ikastetxeak.

MIKEL GARCIA IDIAKEZ @mikelgi

Jorge Arévalo buru duen Lanbide Heziketako EAEko Sailburuordetzaren menpe dago Tknika zentroa, eta honek TKgune ekimena jarri zuen abian duela bost urte. TKguneren izena daraman programaren jarraibideak, Lanbide Heziketako ikastetxeetara bidaltzen dituzten jarraibideak, lortu ditu ARGIAk. 2018ko dokumentuaren arabera, EAEko 34 ikastetxek hartu dute parte programan eta berrikuntzaren eta ikastetxeak eta enpresak saretzearen aitzakian, ez dagozkien funtzioak betetzen ari dira irakasleak.

Berez irakasleek formakuntza edo aholkularitza baino eskaini ezin duten arren, enpresetara komertzialak bailiran joaten dira, enpresek izan ditzaketen beharrak aztertu eta proiektuak eskaintzera. Enpresak proiektu hori onartuz gero, proiektua burutzera eskainiko dio denbora irakasleak. Egindako bisita bakoitzagatik TKgunek diru kopuru jakin bat ordaintzen dio ikastetxeari, diru gehiago aurkeztutako proiektu bakoitzagatik, eta proiektuak lortu eta egin ostean, proiektuak duen kostearen %25 ordaintzen dio TKgunek ikastetxeari. Horregatik, dokumentuak zehazten du enpresei %100eko balioarekin aurkeztu behar zaiola faktura eta bertan adieraziko dela %25eko laguntza aplikatzen zaiola, ordaindu beharreko azken kopurua %75ekoa izanik. Alegia, amu horri esker merkatuan salduko litzatekeena baino merkeago saltzen duela proiektua ikastetxeak, Jaurlaritzaren %25eko diru-laguntza baliatuz. Faktura, Jaurlaritzaren NIFarekin egiten du ikastetxeak, baina saldu duen proiektua saldu duela, aholkularitza eta formakuntza gisa fakturatu beharko du, ikastetxe batek ezin duelako besterik eskaini.

NOLA DA POSIBLE ADMINISTRAZIOAK BALIABIDE PUBLIKOAK BANATZEA, IRAKASLEEK ENPRESENTZAT EGINDAKO LANEN ARABERA? IKASTETXEEN FINANTZAZIOA HORREN MENPE UZTEA?

Dokumentuan adierazten denez, programa honetarako 1.400.000 euroko aurrekontua du TKgunek. Esan bezala, programan parte hartzen duten ikastetxeak diru publikoz finantzatzen ditu TKgunek, egindako bisita eta lortutako helburuen arabera. Horri gehitu behar zaio, enpresentzat lan egiteagatik enpresek ikastetxeari ordaintzen diotena. Pentsatzekoa da, bisitak eta proiektuak ikastetxearen diru-iturri inportanteak badira, irakasleen indarrak horretara bideratzeko arriskua handia dela, baita proiektu horiek lortu asmoz lehia areagotzekoa ere. Irakasleak, irakatsi ordez enpresentzat gero eta lan gehiago egiten aritzeko arriskua, alegia. Azken finean, helburuak lortzen dituen ikastetxeak pizgarri ekonomikoez



Lanbide Heziketako sailburuordetzaren menpe dago Tknika, eta Tknikaren menpe TKgune. Baina programaren bultzatzaile nagusia Lehendakaritza dela dio dokumentuak. Ziurrenik, Lehendakaritzaren zigilu horrek berak lagunduko du enpresetan eta ikastetxeetan suertatu daitezkeen kezkak eta zalantzak uxatzen.

gain orduak ere eskuratzen ditu, lan horietarako liberatzen diren irakasleak. Baina nola da posible, administrazioak baliabide publikoak irizpide horien arabera banatzea ikastetxeen artean? Baliabide horiek jasotzeko baldintza izatea irakasleak enpresa-lanak egitea? Nola da posible ikastetxeen finantzazioa horren menpe uztea eta ikastetxeen autofinantzazioa modu horretan sustatzea?

"BISITAK FINANTZATUTA DAUDELA AIPATZEA EKIDIN"

Esan bezala, zenbat eta bisita gehiago egin, orduan eta diru gehiago poltsikoratuko du ikastetxeak, baina hori enpresei ezkutatzea hobe dela dio dokumentuak: "Bisitak eta proiektuen definizioa finantzatuta daudela aipatzea ekidin behar dugu. Ikastetxeak bisitak egiteagatik diru bat jasotzen duela ikusarazten badiegu laguntzera gerturatzen den agente bat bezala ordez, gerta liteke bisitak egiteko interesa duen agente bat bezala ikus gaitzatela". Interes ekonomiko horri, programak berak ezartzen duen presioa gehitu behar zaio, gutxieneko helburuak finkatzen baititu: "Ikastetxe guztiek bete beharreko gutxieneko 30 bisitako helburua ezartzen dugu eta 50ekoa horretarako gaitasuna duten enpresen kasuan; baita 120 enpresako gehienezko kopurua ere. Argitu beharra dago, bisita horiek burutzearen azken emaitza zerbitzuak garatzera heltzea izan behar dela. Finkatzen diren helburuak: lau bisitatik batean proiektu proposamen bat aurkeztea eta bost bisitatik batean zerbitzu bat garatzea".

NON DAGO INFORMAZIO PUBLIKOA?

Jaurlaritzaren izenean bultzatzen ari diren programa honen berri izatea ez da erraza. Beste programen oinarriak, dekretuak eta aurrekontu-partidak publikoak diren arren, programa honi buruz ez dugu aur-

NOR DA NOR KATE HONETAN

LEHENDAKARITZA

JORGE ARÉVALO
EUSKO JAURLARITZAKO LANBIDE HEZIKETAKO SAILBURUORDEA

IÑAKI MUJIKA
TKNIKAKO ZUZENDARI EXEKUTIBOA

DANI BLANCO

kitu, esaldi soil batetik harago, oinarri zehatzik. Programa honek jasotzen duen diru-laguntza ere, egindako proiektu bakoitzeko ikastetxeak jasotzen duen %25eko diru-laguntza, ez dugu araututa aurkitu. Saiatu gara Hezkuntza sailburuordetzarekin harremanetan jartzen, baina ez dugu haiekin hitz egitea lortu.

ZEIN DAGO HONEN GUZTIAREN ATZEAN?

Dokumentuaren arabera, irakasleak enpresetara doazenean, honakoa garbi utzi behar diete enpresei: "Azpimarra berezia jarri behar da, egitasmoaren bultzatzaile nagusia Eusko Jaurlaritza, Lehendakaritza, dela". Ziurrenik, Lehendakaritzaren zigilu horrek berak lagunduko du enpresetan eta ikastetxeetan suertatu daitezkeen kezka eta zalantzak uxatzen, iluna antzematen den jardun honen aurrean.

ZENBAT ETA BISITA GEHIAGO EGIN, ORDUAN ETA DIRU GEHIAGO POLTSIKORATUKO DU IKASTETXEAK, BAINA HORI ENPRESEI EZKUTZATZEA HOBE DELA DIO JAURLARITZAREN DOKUMENTUAK, "INTERESA DUEN AGENTE BAT BEZALA" IKUS EZ DEZATEN IRAKASLEA

Hain juxtu, Lehendakaritzatik omen datorren enpresa zerrenda bat ere jasotzen du ikastetxe bakoitzak, proiektuak enpresa horietan aurkez ditzaten. Zerrendan ez dagoen beste enpresa batera ere joan daiteke irakaslea, baina gero ikastetxe horrek ez du dirurik jasoko programatik, enpresa hori beste eskola bati badagokio. Zeinek eta zein irizpideren arabera osatzen du enpresen zerrenda?

Berrikuntza eta garapena saltzen du Jaurlaritzak, baina ikastetxeak enpresa-lanak egiten jartzeari ez diogu berrikuntza tankerarik hartzen, gardentasunetik gutxi duen ziriarena baizik. ●

Groenlandia, paradisu berdea

NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA
@irazustabarrena

Groenlandia, 982. Erik Thorvaldsson (950-1003), *Erik Gorria* ezizenez ezagunagoa, munduko uharterik handienera iritsi zen. Esploratzaile eta merkatari norvegiarrak urte batzuk lehenago utzi zuen sorterria, hilketa bat leporatzen ziotelako ihes eginda, eta Islandiara iritsi zen. Han ere hainbat delitu leporatu zizkioten eta hiru urteko erbestealdiaz zigortu zuten. Orduan iritsi omen zen Groenlandiako kostaldera, beti ere Islandiarren Sagen arabera.

Zigorra beteta, lurralde berri hura kokaleku egokia izan zitekeela zabaldu zuen eta 986an 14 ontzi iritsi ziren uhartera, bertan bizitzeko asmoz. Erik Gorriaren Sagak dioenez, "udan, aurkitu berri zuen lurraldera joan zen Erik. Groenlandia deitu zion, izena lagungarria izango zelako jendea erakartzeko". *Grønland* hitzak "lurralde berdea" esan nahi du eta, hala, lur emankorrak eta klima mesedegarria iradoki zizkien errekrutatu zituen gizon-emakumeei. Izen horrekin, Islandia ("Izotzaren Lurraldea") baino askoz hobea izango zela pentsatu zuten askok. Egun, hainbat historialarik iruzurtzat eta nolabaiteko publizitate engainagarritzat jotzen dute Eriken jokaldia.

Dena den hori baino lehenago, uhartearen mendebaldea inuitek populatua zegoen eta haiek *Kalaallit Nunaat* edo Kalaalliten Lurraldea esaten zioten –kalaallitak Groelandiako inuiten talderik handiena dira–. Gainera, Erik ez zen izan Groenlandiara iritsi zen lehen eskandinaviarra ere. Tradizioaren arabera, mende bat lehenago, Gunnbjörn Ulfsson-ek zapaldu omen zuen lurraldea eta *Gunnbjarnarsker* deitu zion. Ondoren, Snaebjörn Galti saiatu zen bertan giza kokaleku bat abiarazten, baina saiakerak porrot egin zuen garaiko erregistroen arabera. Beharbada, ez zuelako asmatu kanpaina eraginkorra egiten, gerora Erikek egingo zuen bezala.



CARL RASMUSSEN

ERIK GORRIAREN ONTZIA GROENLANDIA DEITUKO ZION UHARTERA IRISTEN, 982. URTEAN.

Pentsatzekoa da, 986. urtean 14 ontziak hara iristean konturatuko zirela Erik Gorriak berdez apaindutako lurralde hura izotzaren eta elurraren zuriak hartuta zegoela.

Baina PNAS aldizkari zientifikoak argitaratu berri duenez, Groenlandiako izotzak orain arte uste baino askoz bizkorrago urtzen ari dira, 2003an baino lau aldiz azkarrago. Zoritxarrez, klima aldaketak Erik Gorriaren iruzurra egi bihurtu du. ●

JOHN TENNIEL

Merkurioak erotu zuen kapelagilea

Lewis Carrollen *Aliceren abenturak lurralde miresgarrian* nobelako pertsonaietako bat Kapelagile Eroa da, eta ez da kasualitatea. Carrollek Stockporteko kapela fabrika ezagutzen zuen eta bazekien kapelagileen artean buruko arazoak ohikoak zirela. Ehungintza sektorean eta, zehazki kapelagintzan, larrua garbitzeko merkurioa erabiltzen zuten eta luzaroan substantzia hori arnastuta, langileek hainbat sintoma izan ohi zituzten: jarrera suminkorra, mesfidantza, auto-estimua galtzea, agresibitatea... Gerora jakingo zen buruko arazo horien jatorria merkurioa zela, baina fenomenoak hizkuntzan ere izan zuen eraginik; ingelesez, *mad as a hatter* (kapelagilea bezain eroa) esamoldea erabiltzen da oraindik. ●

IKASLEEN GURASOEN %90 EZ DA BRETOIERA HIZTUNA

MARC'HARID BOUFFAUT-MERDY
BRETOIERAZKO IKASTETXEKO ZUZENDARIA

Marc'harid Bouffaut-Merdy zuzendari da Bretainiako Kemperle-ko diwan ikastetxean. Bretoiera bizirik mantentzeko ahaleginean dihardu. Ez da erraza. Etena izugarria da. Zaharrenek dakite bretoiera, eta haur batzuek; tarteko belaunaldiek galdua dute. Bouffaut-Merdyk kontatu digu nola adinekoek harrituta begiratzen dieten diwan eskolen bidez, ikasgai guztiak bretoieraz eskainiz, hizkuntza biziberritzen ari direlako. Hiztun zaharrak Frantziar Estatuak zanpatu zituen. Hiztun berriek sarraskiari bira eman nahi diote.

JONMIKEL INTSAUSTI @xanmixel

Bretoieraz mintzatzea debekatua eta zigortua izan zen 1830 eta 1960 artean. 1960an zigortzeari utzi zitzaion, Bretainiako eskoletan ez baitzen gehiago bretoieraz mintzatzen.
Tira, nire gurasoek ez zuten sufritu, ez ziren Bretainiakoak, baina nire senarraren gurasoek bai. Aita, 1936an jaioa, eskolara etorri zenean, jende askok bezala ez zuen hitz bakar bat ere ezagutzen frantsesez. Eta berehala, denborarik eman gabe, jakinarazi eta ulertarazi zitzaion frantsesez mintzatu behar zuela: iraindu eta makurrarazi zuten. Eta gero sinboloaren kontua dugu, forma desberdinak hartu zituen, zurezko eskalapoi bat, zulatutako txanpona edo atsedenaldian ahoan eraman beharreko pilota. Goizean irakasleak ikaslea bretoieraz mintzatzen harrapatzen bazuen, sinboloa ematen zion, eta arratsaldean zigortzen zuen, atzamar puntetan erregela batez joz, edo idazten geraraziz. Beraz, orain jende ugarik blokeo psikologikoa du bretoieraren gainean. Hainbeste jo, zigortu eta beheratu zituzten, ez dutela ulertzen zergatik atzera itzultzen ari garen.

Zeintzuk dira bretoieraz mintzatzeko dituzuen arnasguneak?
Ez dira asko, baina eskolatik kanpo bretoieraz egiteko mintzalekuak badira. Adibidez, hemen, Kemperlen, mediatekan hilean behin elkartzen diren irakurketa-taldeak badira, eta *Ti ar Vro* izeneko kultura bretoiko etxeetan ere bretoieraz mintzatu ahal da. Haurrak ordea kanpamentuetara, udalekuetara edo oporretan egindako egonaldi laburragoetara joan daitezke; helduentzat ere eskura dira. Asteburuetan ere saioak antolatzen dira. Mintzatzeaz gain, helduentzako bretoiera ikasteko eskaintza zabala da.

Noiz sortu ziren diwan eskolak?
Lehena 1977ko maiatzean sortu zen Lambaol-Gwitalmez herrian, ikasleen guraso batzuena zen etxe partikular batean. Bigarrena Kemper herrian ireki zen 1977ko irailean, ni eskolatua izan nintzen tokian.

Eta zergatik? Zein egoerari erantzunez?
Eskoletan bretoiera falta zelako. Orain gutxi, bretoierazko eskolen 40 urteak ospatu berri ditugu.

Bretoieran eta Bretainiako identitate kulturalean murgiltzea, elebitasun goiztiarra, tolerantzia, ikasleen autonomia, diwan eskoletan emandako heziketaren oinarria dira.
Ni txikienen andereño naiz. Ahal den guztia egiten dugu bretoiera ahalik eta lehenen entzun dezaten, baita haurtzaindegitik ere. Badira zientzialariak esaten dutenak onuragarria dela, ez soilik hizkuntza be-

rrien ikasteko. Eta gero, beren gurasoak finantzaketa bilaketan engaiaturik ikusteak, elebitasuna babesteak,... gazteei munduko hiritar izatearen ikuspegia ematen die eta kanporantz irekiagoak dira.

Kemperle Bretainiako hego-mendebaldean dago. Zein da bretoieraren egoera eskualde honetan? Eta Bretainiako gainerako eskualdeetan?
Kemperlen bretoieraren egoera ez da hain txarra. Bertako mankomunitateak bretoieraren alde egindako lanagatik saria jaso zuen. Idatzitako komunikazio ofizial guztia eta telefonoz arreta ele bitan egiten dira. Kemperle herrian ere bai, seinaleak eta beste, ele bitan dira.

Baina familian transmisio etenagatik, ikasleen gurasoak ez dira bretoieraz mintzatzen.
Ikasleen gurasoen %90 ez dela bretoiera hiztun esan dezakegu.

Zenbat dira bretoieraren dialektoak? Bada hizkuntzaren era estandarrik?
Lau dira dialekto nagusiak, gwenedera, nire txikiekin mintzatzen dudana, kernevera, leonera eta tregerrera; eta bretoiera batua [penrunvan ("guztiz batua" bretoieraz)] ere badugu, leoneran oinarritua, dialekto honetan hitzak osorik eta idazten diren moduan ahoskatzen direlako. Kerneveran eta tregerreran berriz sarritan hitzaren erdiko silaba, jan egiten da.

> "HIZTUN ZAHARRENEK BRETOIERA NOLA AHOSKATZEN DUTEN JAKIN NAHI DUGU, BAINA EZ DIGUTE LAGUNDU NAHI. HAIEK JOAK ETA BEHERATUAK IZAN ZIREN"

Baina egia ere bada, bretoiera batuaren aurkako jarrera ere badela eta KLT (Kernevera-Leonera-Tregerrera) izeneko sistema ortografikoa bada, baita ere KLTG sistema (Kernevera-Leonera-Tregerrera-Gwenedera).

Etxean eta etxetik kanpo euskara ikasi dutenak bereizteko euskaldun zahar eta euskaldun berri hitzak ditugu euskaraz. Bada bretoieran antzeko bereizketarik? Badira familian ikasitako bretoiera benetakoagoa dela uste dutenak.
Bretoiera ama-hizkuntza bezala ikasiz, egia da azentu ona dagoela, hiztegia badela, gramatika berezkoa dela, eurek ez dute hura nola esan pentsatu behar.

EZAGUTZA

Bretoieraz ongi edo aski ongi mintzatzen diren lagunak, biztanle guztien %5,5 dira (176. 000 pertsona inguru)

Hiztunen populazioa zahartzen ari da eta 15 eta 59 urte bitarteko bretoiera hiztunak hiztun guztien %21 baino ez dira (40.000 pertsona baino gutxiago).

JARRERA

Bretoien %34k bretoiera hitz egin nahiko luke.

3 pertsonatik 1ek bere seme-alabek hitz egin zezaten nahiko luke.

%70ak bretoiera gehiago nahi luke eskoletan.

HAURRAK
Ikastetxean bretoieraz egiten dute dena. Aisialdiko jardueretan, berriz, ezinezkoa zaie.

Baina familiarengandik kanpo ikasten dugunean, tonua silaba zuzenean jartzen ikasi behar dugu, eta honek guztiak eragiten du gero maiz bretoiera etxean eta etxetik kanpo ikasi dutenen artean bereiztea. Etxetik kanpo ikasi dugunok bretoiera literarioagoa dugu, kimikoagoa, baina gurasoengandik ikasi dutenek ez dituzte hitz berri asko menderatzen, gurasoek ezagutu ez eta bretoieraren transmisioan etena gertatu zelako.

> “ETXETIK KANPO IKASI DUGUNOK BRETOIERA LITERARIOAGOA DUGU, KIMIKOAGOA, BAINA GURASOENGANDIK IKASI DUTENEK EZ DITUZTE HITZ BERRI ASKO MENDERATZEN”

Diwan eskoletako araudiak irakasleengan arazoak eragiten ditu. Irakasle bati eskola bat esleitzen zaionean ez da nahitaez etxe ondoan duena. Bestalde, irakasle gisa, eskolaren tokiko bretoiera mintza dezagun eskatzen zaigu, eta pixkanaka ikasi. Eta hala gertatzen da, txikiak izanik aitona-amonekin bizi zirenean bretoiera belarriz ikasitako irakasleak ezin dira [hizkera berri batera] moldatu, belarriz ikasitako bretoiera izanik ezin dute utzi; guk ordea, helduak ginenean bretoiera batua ikasi genuenok, ez dugu dialektorik eta beraz lan egiten dugun lekura egokitzeko gaitasuna dugu.

Dialektoen arteko hiztegia desberdina da.

Ez nahitaez, baina hitzak ahoskatzeko modua oso desberdina da. Eta gure bretoiera kimikoarekin, dioten bezala [umorez dio], etxean haurtxo zirenetik bretoiera mintzatzen dutenengandik ikasi nahi dugunez, eta haiek joak eta beheratuak izan zirenez, ez digute lagundu nahi, ez dugu informazio asko jakiteko beren bretoiera nola ahoskatu. Bretoiera etxean ikasi zutenak gero eta gutxiago dira eta desagertzeko bidean daude oso zaharrak direlako, nire bizilagunak 92 urte zituen eta duela urte gutxi hil zen, bretoiera ikusgarria zuen. Edonon zaila da informazio hori eskuratzea. Irakaslea naiz eta hala esaten didate: “Zuk ikasi duzu, eskolara joan zara, beraz ezer ezin dizut irakatsi”, haiek duten ondasunarekin! Eskualdean, zaharrak ez dira ausartzen beraiek hitz egiten duten bretoiera erakusten, hain gogorra izan zen haurrak zirenean sufritu zutena. Horrela da, oso gogorra da.

Aurten, diwaneko ikasle batzuek brevet-a bretoieraz egin eta azterketak ez dizkiete onartu. Gauza bera gertatu zaigu Euskal Herrian. Frantziako hizkuntz-politikak ez du hizkuntzaren garapenean laguntzen.

Frantziako hizkuntza minoritarioen garapena ez da burutuko, baldin Frantziako Konstituzioaren 2. artikulua moldatzen ez bada. Artikulu honek dio hizkuntza bakarra dagoela, eta frantsesa dela. Beraz, konstituzioan aldaketa egin ezean ezin izango dugu aitzina egin, eta

KORRIKA
Ar Redadeg du izena Korrikaren antzera egiten duten bretoieraren aldeko ekimenak.

ELE BIZ
Bretoiera ikusteko modu bakarretakoa da errepideetako seinaleztapena.

beraiek, gobernu desberdinetan, oso ondo dakite. Ordea, guk egin dezakegu-na zera da: sostenguaren bila erregioetara jo, denok pairatzen baitugu, Euskal

> “AITAGINARREBA ESKOLAN IRAINDU ETA MAKURRARAZI ZUTEN, ULERTARAZI ZIOTEN FRANTSESEZ EGIN BEHAR ZUELA ”

Herrian, Korsikan... leku guztietan!

Bestalde, eskainitako jarduera guztiak ez dira bretoieraz egin ahal. Hemen, Kemperleko Mankomunitatean ingurumenaren gainean eskolei jarduera bikain ugaritan laguntzeko elkarte komisionatuak daude eta ezin dira bretoieraz egin euren lantaldeetan bretoiera hiztunik ez dutelako. Beraz, jarduera batzuk frantsesez egin beharko ditugu, frantsesa funtsezko hizkuntza baita, eta frantsesa aukera bat da, ezta? [ironiaz, barre egin du]. Azkenik, irakasleak bi aukera ditu, eskolan geratu eta ia ezer ez antolatu eskolaz kanpo, edo jarduera egin. Horrela egiten dugu, eskolatik kanpo ikusitakoa bretoieraz berregiten dugu ikasgela barruan.

Diwan eskolak Bretainiako ikastolak dira.

Hala da, diwan eskolak ikastolen eredua aintzakotzat hartuz sortu ziren, Korrika bezala, guk kopiatu genuen eta Ar Redadeg sortu. Antolatu genuen lehen urteaz oroitzen naiz, gauerdi ingurua zen, hemen Kemperlen txikiak esna zeuden, hunkituta. Ar Redadeg eskolaren aurrealdetik igaroko zen, eta han geunden umeekin zain; militarrak zeuden [segurtasun lanetan], iritsi eta axolagabekeriaz galdetu zuten: “Zer da Ar Redadeg?”. Aurreko egunetan, Ar Redadegen berria egunkarietan eta Bretainiako telebistan zabaldu bazen ere... Zaila da!

Nolakoa da zure ametsetako Bretainia?

Bretoieraz eta frantsesez mintzatzerik izango dugun Bretainia, non nahi dugun hizkuntza aukeratu ahal izango dugun, elebitasuna, nonahi, egoera guztietan. ●

IHARTUAGATIK EUTSI

MAITANE GARTZIANDIA

JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

NOLA ESATEN ZAIE UDAZKENA IRITSI, HOSTOAK IHARTU ETA ASKATU BEHARREAN, EGOSKOR BERE GAINEAN EUSTEN DIETEN ZUHAITZ HORIEI?

Izena duen guztia bada, baina alderantziz? Baden guztiak izenik ba al du? Ez dakit euskaraz hitzik badugun horri deitzeko. Alegia, nola esaten zaie udazkena iritsi, hostoak ihartu eta askatu edo bota beharrean, egoskor bere gainean eusten dieten zuhaitz horiei? Eta negu osoan eutsi ere, jeneralean hurrengo izerdialdian ninikak ireki eta hosto berriak ematen dituzten arte.

Gertakari hori izendatzeko latineko "*marcere*" (ihartu, zimeldu...) hartzen dute oinarri gure inguruko hizkuntzek: *marcescência, marcescenza, marcescence, marcescencia*...

Hostoak ez ezik, badira beste zati batzuei eusten dieten landareak; adibidez, txilarrek (*Erica sp.*) zimeldutako loreei eutsi egiten diete edo hortentsiek (*Hydrangea macrophylla*) loreen brakteoei. Ezagunenak, hala ere, hostoei heltzen dieten zuhaitzak dira. Haritzen *Quercus* generoko askok egiten dute hori, baita pagoak (*Fagus sylvatica*), xarmak (*Carpinus betulus*), gaztainondoak (*Castanea sativa*) eta abarrek ere. Denak *Fagales* ordenakoak.

Ez dago argi jokabide horren arrazoia. Zuhaitzetan gehienetan gazteak direnean gertatzen da. Heldutasunera hurbiltzean, joera hori galdu egiten da, baina adar bakan batzuetan jarrai dezake.

Helburu asko aipatu izan dira. Batzuek diotenez, udazken -neguetan hostoei helduta, landareak hurrengo urtean berrituko diren begiak edo ninikak eta sustraiak batesten ditu. Beste batzuek diote, berriz, hosto batzuei helduta bere itzaleko lurraren gainera egiten duen hosto ongarri-gaien ekarpena denboran luzatuz sustraiak hobeto elikatzeko aukera izango dutela. Zenbaitek dio hostoak gainean izanda eguzkiarekin gehiago ajatzen direla eta lurrera joandakoan errazago luartu eta janari bihurtuko direla. Hosto horiek elur gehiago bildu eta ondorioz pixkanaka bere sustraietara ur gehiago bideratzen dutela dioenik ere bada.

Palmera askok ere hosto iharrei luze eusten diete. Itxuraz, hostaje lehor horrek haizeak darabiltzan hondarrak, zakarrak eta abar orrazten ditu, ongarri gisara palmeraren ipurdira ekarriz. Antzeko lanaz gain, uraren estresa orekatzeko erabiltzen dituzte, agidanean, azpiko hosto zimelduak tropikoetako mendietako landare ugarik; esaterako, Andeetako *Espeletia schultzii* eta *Espeletia timotensis*. Landareei bezala, ea gertakari fisiologiko horri ere euskarazko izenen bat jartzen diogun. Proposamenak onartzen dira. ●

DONIBANEKO (IRUÑEA) HIRI BARATZEA

BARATZE BAT AUZOARENTZAT OPARI

MAITANE GARTZIANDIA

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Iruñeko Donibane auzoan martxan jarri berri duten proiektua da Udaberri Hiri Baratzea. Gune berdeak lehenagotik ere badira inguru horretan, baina San Juan Xar auzo elkarteak abiatu duen proiektu honek herritarrak espazio horretan paper aktiboa izatea nahi du, eta ez paseatzaile soil izatea: "Auzokide bakoitzak toki hau bere sentitzea nahi dugu, jendea ahalduntzea eta baratzaren parte izatea", azaldu du Ibai Sueskun kideak. Ongi pasatuz ekologiara hurbiltzeko modua ere izan daiteke auzo baratzearen proiektua.

AUZOARI BIZITASUNA

Donibane auzoaren dinamizazioan dihardu San Juan Xar elkarteak: ekimen kulturalak antolatzen, bertako komertzio txikia bultzatzen edota auzo bizitza sustatzen dabil, besteak beste. Donibaneri bizitasuna emateko pauso bat gehiago da baratze proiektua. "Auzoari tresnak eskaini beharra dago bertan bizitasuna egon dadin, eta horretarako, baratzea auzoan muntatzea ideia ona zela pentsatu genuen". Auzotarrentzat elkargunea sortzea da helburu nagusietakoa, belaunaldi ezberdinetako jendea batzeko saiakera da.

Baratze taulez gain, orain arte egin dituzten auzolanetan konpost-ontzia, hondargune bat, mahaiak, bankuak eta petanka jolasa ere jarri dituzte. Eta baratzean lehen landaketak egin dituzte jada: baba, ilarra, tipulak, baratxuriak... hasi da barazki festa! Auzoko eragileak espazio berria euren ekimenetarako erabiltzera gonbidatzen dituzte proiektuko kideek: "Gazte Asanbladak ikastaro bat bertan eman nahi duela, edo hezkuntza komunitateak hona etorri, bisita gidatua egin eta landaketak egiten ikastea proposatzen duela... Guztientzako tresna izanen da baratzea".

AUZOLANA OINARRI

Proiektuari ekiteko lehen urratsa, auzoan aurkezpena egitea izan zen, eta erantzun hona ikusita aurrera jarraitzea erabaki zuten: "30-40 pertsona inguru etorri ziren, euren kontaktuak hartu genituen eta lantalde motorra sortu". Udalarekin harremanak eta komunikazio bideak kudeatzen ditu talde horrek, baita baratze gunearen prestaketetarako auzolanak deitu ere. Jendearen erantzuna oso ona izaten ari dela dio Sueskunek, eta proiektuak interesa eta poza sortu duela auzoan.

Urtarrila bukaeran eginen dute azken auzolana, falta diren azken gauzak prestatzeko. Ondoren, baratzea antolatzeko hainbat lantalde sortu eta aitzurrak martxan jartzea izanen da egitekoa. "Jendea gogotsu eta pozik dago, batez ere ikusten duelako bazegoela plaza bat inongo erabilerarik gabea, eta orain plaza hori jantzi egin dela, kolorea eman zaiola, eta guneak auzoari ekarpena eginen diola". ●

EUSKAL HERRIKO **AGENDA**

OTSAILAK 7
SANTURTZI
Gazteentzako sukaldaritza tailerra.
18:00etan Mamariaga kulturgunean.

OTSAILAK 8
TOLOSA
Tolosaldeko txotx irekiera. Afaria Zerkausian.

OTSAILAK 9
DURANGO
Berdeago Nature azoka. Produktu ekologiko eta naturalen azoka. Landako Gunean.

OTSAILAK 9
ITZIAR
Santa Eskea baserriz baserri. 8:30ean Itziarko plazatik abiatuta.

OTSAILAK 12
OLABERRIA
Osasunean hezten elikadura tailerra.
17:15etan liburutegian.

OTSAILAK 20
HENDAIA
Erlauntza eta erleen onurak tailerra.
14:30ean Cpie-n.

OTSAILAK 22
GASTEIZ
Hazi ekologikoen sorkuntza tailerra.
18:00etan Dehesa etxean (Olarizu).

ASTEKO PORTADA HAUTATUA

1976ko apirilaren 11

KOLDO IZAGIRRE

Zer dira 24 ordu hizkuntza baten bizian?

Egun hura, gau hura, ordu haiek historikoak izanen zirela zekiten euskaldunez betea zen belodromoa. Ilunpean, kantari edo ez, une hunkigarriak sortu zituzten: bizirik gaude, milaka izar gara seinaleak egiten, hizkuntza batek egiten gaituela herri aditzera ematen. Leize, gela, ganbara, auzo, lantegi, zuhaitz, euri, bihotz, taberna, zubi, mendi, karrika, biok, hitz bana dira gar txipi horiek denak. Konstelazio, mundutxo, komunitate, atxikimendu sekretu bat. Maitasun.

Jagoitik, geu ariko gara gutaz.

Elizaren irratietarik gutaz. Bilbo, Donostia, Loiola.

Non bestela diktaduraren lizunik gabeko hizkerarik?

Handik urte batzuetara, Espainian demokrazia geneukala, Herri Irrati haiek eten egin behar izan zuten Cope katearekiko zuten lotura. Elizaren katea zen hura barren. Baina kate hartarik botatzen zirenak iraingarriak zitzaizkigun gutaz aritzen ziren aldi oroz, alegia, egun oroz.

Iragan ziren 24 orduak, heldu zen hurrengo eguna, dena gau. Eta gar txipi haiek argi ematen iraun zuten egundaino. ●

ARGIAK 100 URTE

1989 ARGIA SARIAK

Lehenengo hura

ARGIAKO ARTXIBOA

Iñaki Eizmendi "Basarri" *Eguna*-ko kolaboratzaileak etxean jaso zuen Argia Saria.

MIREN OSA GALDONA
@mirentx_u

Euskal kazetaritzaren loraldia izan zen 80 eta 90eko hamarkadetan. Garai horretakoak dira Euskal Telebista, Euskadi Irratia, Iparraldeko hainbat irrati eta eraberritutako ARGIA bera, beste askoren artean. Elkarlan handiko eta euskaltzaletasun sutsuko belaunaldien emaitza izan ziren komunikabideok. Kanpotik babes gutxi iritsi baitzen ordu hartan, are gutxiago euskara hutsean aritzea argi zutenentzat.

Halako testuinguru berezian egin ziren lehen Argia Sariak, 1989. urteko azaroan. Sarien xedea euskalgintzaren, erakundeen eta familia politiko ezberdinen artean elkargune bat sortzea izan zen; bazkari goxo baten konpainian, bidelagun zirenen lana aintzatetsi, eta atzean utzitakoei aitortza egiteko. Paper garrantzitsua jorratu zuen Felix Sarasolak, sariok ezin baitaitezke ulertu bere laguntzarik gabe. Bere jabetzako jatetxeetan antolatu dira urte guztiotan Argia Sariak: hasieran Txartel-Txokoan, ondoren Txixardin Beltzan eta egun Atxegan.

ARGIA "berriaren" langileek ezarri zuten beste mugarri bat izan ziren Argia Sariak: martxan zen garai hartarako Antza inprimategia, aldizkariari ere izaera propioa ematen hasiak ziren, eta, urtebete geroago plazaratuko zen arren, *Euskaldunon Egunkaria*ren ideia forma hartzen hasia zen.

Ezeren aurretik, idatzi gabeko lege bat ezarri zuten: "Sariak besteentzat dira, ez etxekoentzat", eta hala mantendu dute hitza 30 urteotan. Sei kategoriatan banatu zituzten lehen aitortza haiek: prentsa idatzia, irratia, telebista, aipamen berezia, merezimenduzkoa eta hilondoko saria. Martin Ugalde, Luzien Etxezaharreta, Mikel Olazabal, Euskalerria Irratia, *Eguna* eta Josu Muguruza izan ziren sarituak, hurrenez-hurren. Nabarmentzekoa da azken sari hura: bi aste lehenago hil baitzuten Josu Muguruza, ARGIAko kolaboratzailea, gerra zikinari lotutako atentatu batean.

Aldaketak izan dira sarietan, kategoria gehiago saritzen dira egun, esaterako. Hala ere, izaera bera izaten jarraitzen dutela esan daiteke. Testuingurua aldatu baita, ez, ordea, elkarri babesa adierazteko beharra. ●

ARGIA JENDEA

100 urte eta trabesian aurrera

DANI BLANCO

EGIA, AMETZAGAÑA 19. Egun Joxemi Zumalaberen egoitza dena Argia-ren erredakzioa izan zen 80ko hamarkadan. Argi koadroan dauden pegatinak garai haren lekuko dira.

JOXEMI ZUMALABE FUNDAZIOA
@JoxemiZumalabe

100 urte bete ditu Argia aldizkariak, eta urteurren horren bueltan gure ekarpena egin eta bidean partekatutako hainbat kontu gogora ekarri nahiko genituzke. Fundazioaren ibilbidea itsasontzi batean irudikatuko bagenu, olatu eta haizete artean Argiako lagunekin topo egitea, a zer altxorra!

Portuan. Fundazioa sortu zenetik, hau da, gure nabigazioa abiatu genuenetik izan dugu elkarren berri. Itsasontziaren izenak ere lotura handia du aldizkariaren historiarekin: 1996ko apirilean lagun talde batek fundazioa sortu, eta, adiskide zuten Joxemi Zumalabe Goenagaren izena jartzea erabaki zuten.

Joxemik Argia aldizkaria aurrera ateratzen lan handia egin zuen, baita *Euskaldunon Egunkaria* proiektua sustatu ere. Beste hainbat ekimenetan ere jardun zuen baina, zoritxarrez, gaitz batek eraman zuen 1993ko urtarrilean. Joxemi bera omentzeko eta herrigintzan egin zuen ekarpena gogoan izateko jarri zitzaion bere izena fundazioari.

Ganbaran. Egia auzoko Ametzagaña kalean dugun bulegoa litzateke gure itsasontziaren ganbara. Lokal horren genealogiaren arrastoak aurkitzen ditugu bulegoa txukuntzen hasten garen bakoitzean: herri mugimenduen liburuxka eta txosten zaharrak, Argiakoen pegatinak, 18/98 epaiketan erabilitako muralak, Euskal Memoria Fundazioko kartelak... Material zahar bakoitzak, badauka bere historia, eta ez da zaila Diogenes sindromeak jota galtzea. Arakatze lanetan hasiko bagina, bulegoaren sarreran kokatuta dauden Argiako pegatinek aldizkariaren mugimendu eta aldaketa garai batera garamatzate. 80ko hamarkadakoak dira gure ganbaran aurkitu ditugun oroigarri txiki hauek, Argia aldizkariko kazetariak tarte batez lokal honetan egon zirenekoak. Fundazioko beteranoek garai hartan Argiako lagunekin batera bizi izandako hamaika pasadizo kontatu dizkigute.

Herri mugimenduen itsasoan. Portutik itsasoratu ginenenetik, Euskal Herrian bestelako jendarte eredu baten alde lanean ari diren herri mugimenduak laguntzea izan da gure kolektiboaren iparra. Hau da, Euskal Herriko herri ekimen, talde eta mugimenduek egiten duten ekarpen sozial eta politikoa ikusarazi, sendotu eta merezi duten aitortza egitea.

Eta itsaso zabal honetan trabesia egiten jarraitzeko, beste txalupa eta itsas-piztia batzuen ekarpena ere oso garrantzitsua iruditzen zaigu. Tartean, hor ditugu herri ekimenetik sortu eta herri mugimenduei ahotsa ematen dieten hedabideak.

Herrigintzan ari garen eragileontzat, behar-beharrezkoak dira Argia bezalako egitasmoak: berrasmatzen diren kazetaritza proiektu independenteak, euskaraz eta herri mugimenduokin konprometituak. Etorkizunean ere, ezinbestekoa da guretzat haien lana, eta beharrezkoa guk babesa eta sostengua ematea.

Efemeride hau, orain arte bizitako abenturen ospakizuna izan dadila! Beste mende batez, elkarrekin txikitik eragiten jarraituko dugulakoan, besarkada estua eta eskerrik asko. ●

IRUTXULOKO HITZAN ARGITARATUTAKO ARTIKULUA (2019-01-18)

AZOKA

AZOKA.ARGIA.EUS

OGITARTEKOA ERAMATEKO ZAPIA

Barrutik oihal plastifikatua dauka erraz garbitzeko. Izena jartzeko etiketa du.

NEURRIAK ETA PREZIOAK: Hiru neurritakoak daude, txikienek 12na euro eta handienak 15 euro balio dute.

***BIZI BARATZEA* LAMINAK**

Bizi Baratzea komiki liburuaren aurkezpenetan, irudigileek momentuan eginiko 17 lamina ditu aukeran ARGIA Jendeak musutruk.

EGILEAK: Joseba Larratxe, *Mattin*, *Axpi*, Antton Olariaga.

NEURRIAK: 35 cm x 50 cm.

NOLA DA "MUSUTRUK"?

Ostegunetan 10:00etan jartzen ditugu Argia Jendearentzat musutruk dauden gaiak eta zozketarik gabe, bizkorren eramaten dituenarentzat dira. Ondasunak banatu ditzagun, urtean musutruk gai bat hartzea eskatzen da. Denon esku dago Argia Komunitatea elikatzea, bakoitzak ahal duena besteen esku musutruk jarrita.

Zinearen historia hasieratik... eta feminismotik



Heer, J. C. Guide to Lucerne (Lucerne, Lucerne: H. Keller's Foreign Printing Office, 1907)

Pasa den urrian ekin zioten. *Hasieratik: zinema feministaren historiak* zikloa martxan jarri zuten Tabakaleran, eta, hilean behin ari dira aztertzen zinemaren sorreratik bertatik emakumeek arte horri egindako ekarpenak. Historia posible bat da, beste hainbesteren artean. Egitasmoaren inguruan hitz egin nahian jo dugu Lur Olaizola Tabakalerako zinema eta ikus-entzunezkoen programaren koordinatzailearengana.

DANELE SARRIUGARTE MOCHALES

Hasieratik: zinema feministaren historiak zikloaren abiapuntuaz galdetu, eta hala erantzun digu Lur Olaizolak: "Azken batean, denok dakigu eraikitako narratiba bat dela historia, eta nahi genuke Tabakalerako zine-aretoa horixe izatea, behin eta berriro zinearen historia asma dezakegun leku bat". Izenburu hori zergatik jarri zioten azaldu digu ondoren: "Guk, kasu honetan, ibilbide bat proposatu dugu; ez da historia bakar bat, baina hasieratik hasi nahi genuen". Eta zein da, bada, hasiera hori? Izen bat aipatu digu Olaizolak: Alice Guy.

"Historia ofizialean kontatzen da [Georges] Mélièsek egin zuela fikziozko lehen pelikula, baina ez da horrela. 1895. urtean, Lumière anaien lehen proiekzioetako batean, hantxe zegoen Guy, eta proiekzioa ikusi zuenean, konturatu zen zinematografoak bazeukala historiak kontatzeko gaitasuna. Bera izan zen historian fikziozko pelikula bat egin zuen lehen zine-zuzendaria". *La Fée aux Choux* zuen izena film hark, eta Guyk hiru bertsio egin zituen; lehena, 1896an. Hala, zine-zuzendari aitzindariei eskaini zioten zikloaren lehen hitzordua, eta Guyrenarekin batera eman zituzten beste hiru emakume zinegileren film laburrak ere, obra guztien arteko lotura aprobetxatuta: Germaine Dulac-en *La souriante Madame Beudet* (1923) eta *Étude cinématographique sur une arabesque* (1929), Maya Deren-en *At land* (1946) eta Marie Menken-en *Glimpse of the garden* (1962). Aitzindarien ostean, beste hainbeste zine-zuzendari garaikideren obrak ekarri dituzte, adibidez, Věra Chytilová-ren *Daisies* (1966). Olaizolak nabarmendu duenez, eta sarri gertatzen den moduan, zikloan programatzen ari diren emakume askok ez zuten beren burua feministatzat hartzen, edo, bestela esanda, ez zituzten beren pelikulak ikuspuntu horretatik egin. "Guk, ordea, horixe proposatu dugu: egin dezagun ibilbide hau, eta ibilbide hau bada zinema feministaren ibilbide bat".

NOLA AUKERATU SAILERAKO FILMAK

Baina... zerk egiten ditu lan horiek feminista? Jo dezagun atzera. Zikloa bera abiatu baino lehen, beste proiektu bat sortu zuten Tabakaleran: programazio talde ireki bat. Olaizola: "Badago zinera behin eta berriro datorren jendea, baina, askotan, kosta egiten zaigu programatzaileen eta ikusleen arteko muga hori gainditzea, solasaldietan ere. Halako batean, gure buruari galdetu genion ea zer gertatuko zen jendea gonbidatzen bagenuen lan-talde batera eta hor hasten baziren eztabaidatzen zer pelikula ikusi nahi zuten. Proposatzeko espazio eta denbora hori eduki nahi genuen".

Eta hortxe atera zuten, beraz, gaia mahai gainera: zerk egiten du pelikula bat feminista? "Gauza bat da emakume batek zuzendutako pelikula bat jartzea", dio Olaizolak, "baina beste gauza bat da pelikula bera feminista bezala irakur daitekeen ala ez, hau da, emakume batek zuzendu dezake pelikula bat, baina zine horrek jarraitu dezake eskemarik edo lengoaiarik klasikoena edo konbentzionalena. Guri gehiago interesatzen zitzaigun lengoaiak berak puskatzea daraman zamarekin, eta hortik doa gure proposamena. Ez dira emakumeek zuzendutako pelikulak". Ez behintzat hori bakarrik. Pelikulek eurek hausten dituzte ikusleak aurrez espero dituen formak. "Hor dago

MADAME A DES ENVIES Alice Guy fikziozko zineman aitzindaria izan zen. Haren lanen artean artean azpimarratzekoa da 1906ko hau.

DAISIES Věra Chytilovák 1966an zuzendutako lan hau mugarritzat jotzen da Txekiar Errepublikako zinema berriaren jaiotzan.

AITZINDARIAK

ALICE GUY izan zen historian fikziozko film bat egin zuen lehen zuzendaria, gerora historiak haren izena estali badu ere. Tabakalerako zikloak haren lanetara itzultzeko aukera eman du.

LAURA MULVEYk Peter Woollen-ekin batera *Riddles of the Sphinx* zuzendu zuen eta, horretaz gain, Hollywoodeko filmeetan nagusi zen begirada maskulinoa nabarmendu zuen.

BARBARA HAMMER izan zen zinema lesbianoaren aitzindarietako bat. 1988an zuzendu zuen ***History of the World According to a Lesbian*** ikusteko aukera emango du Donostiako zikloak.

gauzak benetan aldatzeko aukera, bat -batean ikusle bezala deseroso sentitzen zarenean".

BEGIRADA MASKULINOARI PLANTO

Adibide bat emateko eskatu diogu Olaizolari eta abenduko saioa ekarri du hizpidera. Laura Mulvey eta Peter Wollen-en *Riddles of the Sphinx* (1977) ikusi zuten orduan, eta saio berezia izan zen, gainera. Zikloan, filma ikusi aurretik, hizlari batek aurkeztu ohi du obra, eta Mulvey eta Wollenenari sarrera emateko, pertsona bakarra ez baizik programazio taldeko sei kide agertu ziren. Olaizolaren esanetan, ez zen izan norabide bakarreko hitzaldi bat: "Izan zen gure arteko elkarrizketa bat, ikusleei kontatuz zer nolako erreferenteak, galderak, zalantzak eta eztabaidak ibili genituen filma ikusi eta gero. Publiko egin genuen hori dena, ikusleek gure zalantzak ikusteko eta konpartitzeko". Olaizolaren ustez, horrelako gauza txikiengatik da zikloa berezi.

Baina itzul gaitezen harira, merezi du-eta Mulveyri tarte txiki bat eskaintzea. 1973an, artikulu bat argitaratu zuen, *"Visual Pleasure and Narrative Cinema"* (Ikusizko plazera eta zinema narratiboa), eta sona handia bildu zuen. Olaizolak laburbildu digu haren ikuspuntuaren muina: "Mulvey zinema ikertzen hasi zen zinefilo handia zelako, Hollywood klasikoenaren zale porrokatua, eta momentu batean konturatu zen nola errepresentatzen zituzten emakumeak zine hartan. Konturatu zen, azken batean, begirada maskulinoarentzako eraikita zeudela film haiek". Eta zer egin zuen orduan? Bada, horrekin moztu, eta zalantzan jarri. "Horregatik interesatu zitzaigun *Riddles of the Sphinx*, pelikulak berak egiten duelako proposamen zinematografiko bat, zinemaren ohiko lengoaia puskatuz".

Hurrengo hiru hilabeteetako proiekzioak zehaztuta daude eta elkarlanean egingo dira Bartzelonako Films de Dones nazioarteko erakusketarekin

360 graduko plano zirkular asko jarraian ipinita, hala hautsi zuten Mulveyk eta Wollenek ohituta gauden lengoaia. "Askotan ez dira pertsonaien buruak ikusten, oso erritmo arraroa da, ez baita ezer gertatzen, eta, aldi berean, oso begirada horizontala da, ez baitaukazu gauza zuzen bat, baizik eta kamera bat, espazio bat erakusten dizuna pixkana-pixkana, eta zuk zeuk joan behar duzu hor gertatzen ari dena eraikitzen. Ez da gauza kriptiko bat, ez da gauza ilun bat, baina, ikusle bezala, beste era batean jartzen zaitu", esplikatu du Olaizolak.

OTSAILETIK AURRERA, HAINBAT HITZORDU

Azaldu dizuegu, gutxi-asko, zertan datzan *Hasieratik: zinema feministaren historiak* zikloa. Orain, beraz, hemendik aurrera egingo dituzten hitzorduak aipatzea dagokigu. Lehenik, otsailaren 11n, programazio talde irekiko kideak bilduko dira, arratsaldeko lauetan, Tabakalerako sortzaileen gunean. Jendea animatu du Olaizolak: "Gogoa baldin badaukazue, etorri, horixe baita asmoa: elkartu, hitz egin, pentsatu, batek proposatu dezala gauza bat, besteak beste bat… Ez dago erantzun bakarrik. Gai hauei buruz hitz egiteko gogoa, denbora eta espazioa, hori konpartitu nahi dugu".

Koordinatzailearen arabera, gauza finko eta konkretuak lagungarriak suertatzen dira halako talde irekiek aurrera jarrai dezaten, orokorrean jendeak gogoa bai, baina denbora gutxi edukitzen duelako. Zentzu horretan, zikloa antolatzea ekarpen positiboa izan da: "Elkarrekin film bat ikusten badugu hilabetean behin, eta entzuten badugu zer kontatzen digun Selina Robertsonek [ziklora gonbidatu duen hizlarietako bat da Robertson], ba gozamena izango da, eta listo. Gauza txiki bat da, baina oso handia aldi berean".

TALDE-LANA. Ohikoa izaten den moduan pelikula bakoitza pertsona bakar batek aurkeztu beharrean, programazio talde osoak egin zuen aurkezpena *Riddles of the Sphinx* filmaren emanaldian. Ez da kasualitatea: hasieratik bultzatu dute publikoak programazioan parte hartzea.

Hurrengo hiru hilabeteetako proiekzioak zehaztu dituzte jada: elkarlanean antolatu dituzte, Bartzelonako Films de Dones nazioarteko erakusketako kideekin batera. Ibilbide luzea egin du jaialdi horrek, eta iaz haiekin ekindako lankidetzari eutsi dio Tabakalerak aurten ere. Katalunian asteburu bakarrean erakutsitako filmak hiru hilabetetan ikusteko aukera izango dugu, beraz, Donostian: otsailean hiru obra emango dituzte: *Soy Cámara. La carcajada de la Medusa* (Marta Nieto eta Marga Almirall, 2018), *Older Women and Love* (Camille Billops eta James Hatch, 1987) eta *History of the World According to a Lesbian* (Barbara Hammer, 1988). Martxoan eta apirilean, berriz, bana: *The Gold Diggers* (Sally Potter, 1983) eta *De stilte rond Christine M.* (Marleen Gorris, 1982), hurrenez hurren.

> ***"Nahi genuke Tabakalerako zine-aretoa izatea behin eta berriro zinearen historia asma dezakegun leku bat"***
>
> **LUR OLAIZOLA**

Zikloan izango da bestelako elkarlanik. Iaz jarri zen martxan Tabakalerako zine-eskola, eta hango ikerketa-talde bateko kideak programazio taldearekin batera aritu dira azkenaldian, Olaizolak kontatu digunez. "Zine eskolako ikerketa-talde bateko kideak Cinenova banatzaile feministaikertzen ari dira, eta, horren harira, erabaki dute Sandra Lahire zinemagilean zentratuko direla. Beraz, seguru asko, zuzendari horrekin lotutako saio bat egingo dugu, agian maiatzean edo ekainean".

Historiak narratibak direlako, zergatik ez guk kontatu gurea? Hartara, ez dezagun ahaztu, zinemaren sorreratik bertatik aritu direla emakumeak argi-itzalen magia lantzen. ●

blogetan!
BLOG IZARREN BILA
Eman izena!
Lehiaketan parte hartzeko epea otsailaren 24a arte egongo da zabalik
SARIAK
Bernat Vidal artistaren garaikurra
200 euroko diru txekea
ARGIAn kolaboratzeko aukera
AZKUE FUNDAZIOA
KATEGORIAK Kultura / Gizartea / Zientzia / Aisia / Politika / Teknologia
blogetan.eus

LIBURUA

Agurrak eta enkontruak

NEGUKO ARGIAK
PAMIELA, 2018
IDAZLEA:
IRATI ELORRIETA AGIRRE
ALGORTA, 1979

IRATXE RETOLAZA

Irati Elorrietak pertsonaia ibiltariak gorpuztu ditu *Neguko argiak* (Pamiela, 2018) nobelan. Joan-etorrira ohituriko pertsonaiak dira gehienak, jaioterriaz besteko hiri batean –Berlinen– gurutzatu direnak. Añes eta Marta dira protagonista nagusi bi, hiri-ibiltari direnak, zentzu askotan: bai hiri batetik bestera aldatu dutelako bizitokia (Parisetik Berlinera egin dute bidea), bai hiri-geografian barneratzeak barrenak mugiarazten dizkielako, hiriko bazterreko zokoekin bat egiteraino, hiri-giroan kamuflatzeraino. Era berean, memoriaren zokoetan ere ibiltari dira, batez ere Añes: paisaiak ere denbora lerro bihurtzen zaizkie, iraganaren arrastoen gordailu.

Añesen eta Martaren adiskidetasuna nobelaren geruza nagusietako bat izan arren, askotariko geruzez eraikitako mundu literarioa da; horixe da, nire ustez, nobelaren ekarpen handienetariko bat, geruzaz geruza, oso modu sotilean, mailaz maila, protagonisten nortasunera eta ezinegonetara hurbiltzen zaituela.

Geruzaz geruza pertsonaia-sare oparoa eraiki da nobelan, baina sarearen korapilo gehienak bi pertsonen arteko harremanetan eraiki dira: Añes-Marta, Añes-Bruno, Marta-Martin, Añes-Esteban, Añes-Xuan, Xuan-Claire, eta abar. Korapilo horiek guztiek elkar osatzen dute, elkarri eragiten diote, harremanen mapa ñabarra irudikatzeraino. Besteen begiradak eraikitzen dituzte pertsonaien nortasunak, besteen ahotsek kolpatzen dituzte pertsonaien nortasunak, eta hain zuzen ere, ispilu- eta ahots-joko horiek dira nobelaren arkitektura narratiboaren muin.

Pieza laburren bitartez eraikitzen da afektu-mapa hori. Lehen irakurraldian, aurkibidea gainbegiratzean, pieza laburren izenburuek harritu egin ninduten, batzuetan esplizituegi zirelakoan, besteetan sinbolikoegi, eta atalen izenburuekin guztiz ez asmatu izanaren sentsazioa sortu. Nobelan barneratu ahala, geruzak urratu ahala, izenburuen joera horrek bi pertsonaia nagusien gatazka ere irudika zezakeela pentsatu nuen; izan ere, afektuen labirinto horretan orpoz orpo irudikatzen baitira edertasuna eta oinazea, zehaztasuna eta haluzinazioa, erreala eta simulazioa, biziak eta hilak. ●



KONTZERTUA

Irregularra

LOMBARDI ALLA PRIMA CROCIATA
VERDI

EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA

Zuzendaria: Riccardo Frizza
Bilboko Operaren Abesbatza
Zuzendaria: Boris Dujin
Eszena zuzendaria: Lamberto Puggelli
Berritzearen eszena zuzendaria:
Grazia Pulvirenti
Eszenografia: Paolo Bregni
Bakarlariak: Ekaterina Metlova,
Roberto Tagliavini, José Bros,
Sergio Escobar, Jessica Stavros.

Euskalduna Jauregian.
Urtarrilaren 19a.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

OLBEren denboraldiak aurrera jarraitzen du. Lehenengo bi titulu famatuen ostean (Pucciniren *La Bohème* eta Beethovenen *Fidelio* hain zuzen ere), hain askotan programatzen ez den opera eder bat ikusteko aukera izan dugu: Verdiren *I Lombardi alla prima crociata*. Oso lan inspiratua dugu hemen. Verdik, *Nabucco*ren izugarrizko arrakastaren ondoren, trama historikoaren maukari heldu zion, eta XI. eta XIII. mendeen artean izandako lehenengo gurutzadan kokatu zuen drama hau. Produkzio honetan, Grazia Pulvirentik, berritzearen eszena zuzendariak esaten duen bezala, iragana eta oraina urtu egiten dira. Iraganeko mina, guduaren mina, hortxe dugu gaur egun. Verdiren mezua, bakearena eta anaitasunarena, Europan eta mundo osoan, jarraitu behar dugu entzuten.

Esan bezala, obra sakona eta melodiotsua entzun genuen. Halere, alderdi artistikoan ez zen bereziki distiratsua atera. Une larrienak José Bros tenoreak pasatu zituen, *Oronto*-ren rolean. Iragarri zuten emanaldiaren aurretik eztarriko arazoren bat zuela, eta, beraz, aktuazioa ez zen izango guztiz biribila. Baina zoritxarrez interpretazio penagarria eskaini zuen. Hobe beste abeslari bat bilatzea halako baldintzetan kantatzea baino. *La mia letizia infondere* aria ederra, adibidez, txikituta geratu zen.

Roberto Tagliavinik, *Pagano*-ren paperean, taxuzko interpretazioa egin zuen, nahiz eta gripeak jota egon. Ez zitzaion gehiegi nabaritu, eta bere ahots sakona luzitu zuen. Sergio Escobar tenoreak *Arvino* konbentzigarria egin zuen, eta Jessica Stavrosek, *Viclinda*-ren rolean, ongi proiektatu zuen ahotsa. Halere, adierazkortasuna falta zitzaion.

Hori bai, *Giselda* eder eta eraginkorra entzun genuen. Ekaterina Metlova soprano errusiarrak rol protagonista interpretatu zuen adorez, eta ahots seguru eta tinbre ederrekoa erakutsiz. Lehenengo ekitaldiko *Salve Maria* zoragarria iritsi zitzaigun. Emanaldiaren erregina bihurtu zen, zalantzarik gabe.

Eszenaratze egokia eskaini zuten, nahiz eta modu nahasian aurkeztu pasarte desberdinak. Izan ere, une batzuetan konplikatua izan zen argumentua jarraitzen.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa eta Bilboko Operaren Abesbatza, Riccardo Frizzaren eskutik, puntu-puntuan. ●

Ez moralkeriarik, ez maskararik

HERIOTZA BIKOITZA ANTZEZLANA

NOIZ: Abenduaren 23an.
NON: Juanba Berasategi aretoan, Pasaian.

TESTUA I **ITZIAR UGARTE**
ARGAZKIA I **GAZTESZENA**

"Ez zaizkit egun hauek gehiegi gustatzen. Bada zerbait goibeltzen nauena". Azken egunak berdina esan eta esan, baina, ai, Pasai Donibanera heldu, badia ertzetik oinez hasi eta baretasun horrek, gehiegikeria ezak kontrako zerbait esan dizu. Bat-batean, etxe artean, lagun talde bat gabon kantuan. Ez dute inor begira, eta eurentzat ari dira. Albotik pasatzean lagunari, "bale, hau gustatzen zait". Erlojuari begiratu, eta, akordatu orduko, ibilitakoa desibili beharra; zazpietan hastekoa da antzezlana.

Jon Ander Alonsok zuzenduta, Eneko Sagardoy eta Miren Gaztañaga ariko dira agertokian; jakin, ez dakizu askoz gehiago ikustera zoazenaz. Igande iluntzea da, eta poza ematen du hainbeste jende ikusteak. Berandutu egin da. Baina sartu gara, bete dugu aretoa eta ekin diote. Lehen flasha kamerarena: aktoreek hari hitz egin diote antzeztu artean, eta oholtzako bi pantailetan agertzen da zuzenean. Hari narratibo argi baten faltan, aktore bien arteko solasa bihurtu da obraren ardatz nagusi. Saltoka doa dena, eszenaz eszena, eta izenez deitzen diote elkarri. Miren. Eneko. Horra obraren beste osagai erakargarrienetako bat: aktoreen benetako bizipenen eta eraikitako pertsonaien artean dabil gidoia; Argentinako psikoterapeuta bat da Gaztañaga batean, eta duela bi urte bizitako boikot deiaz ari da bestean; Sagardoyk 22 urterekin hil zitzaion lagun bat ekarri du gogora, eta heriotzaz jantzi da gero.

Heriotza da gaia, baina ilunetik baino gertuago dabil umoretik, heriotzari zintzotasunez begiratzetik. Barre negar egiteraino Sagardoyk heriotzarena egin duenean, eta, segidan, berriz malkotan, baina kontrara, Gaztañagak amona zenduari hitz egin dionean. Ordubete pasa iraun du obrak, eta letra larriz aipatzekoa, aktore bien talentua.

Emanaldi ostean, solasaldia. Erdira jaitsi da publikoa, eta sormen prozesuaz aritu da taldea. Ez-ohiko galdera bat egin den arte: "Zer da benetan hau egitea? Ekonomikoki, alegia?". Alonsok zuzen: "Galera ziurra". Glup jendeak. Zaila dena zailagoa izan du antza obrak: ez dakite oso ongi zergatik, baina 2017ko azaroan estreinatu zutenetik zortzi emanaldi baino ez dituzte egin. Antzezlanak eragindako sentsazioetatik kolpetik egin duzue lurrera. Baina barrutik ari dena, benetan ari da: heriotzaz moralkeriarik gabe; antzerkigintzaz, maskararik gabe.

"Ez dut sinesten kasualitateetan, uste dut dena gertatzen dela zerbaitengatik", dio Gaztañagak oholtza ertzean jarrita. "Eta, orduan?", galdetzen Sagardoyk. "Bihar deitzen badizute esanez atzo goizeko ordu bietan auto istripuz hil nintzela?". "Hemen egin beharrekoak egin dituzula pentsatuko dut", Gaztañagak. "Egin beharrekoak egin ditudala? 24 urterekin?". Isildu, eta hor itxi da eszena.

Hurrengo goizean, albistea dakar egunkariak. Antzerkian ondoan izan zenuen lagunak bidali dizu: "24 urteko gazte bat hil da Los Arcosen, Nafarroan, trafiko istripuan". Badia, gabon giroa, hotzikara bikoitza. ●

EGILEA I **ANA ZAMBRANO**

Hitz gezidunak



Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	3			2				
1	8	9	6					
6			9			7	8	
	2			4	6			
			8	9			1	
	7	4			2			1
					7	9	6	2
				8			7	

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Ihes egin.
2. Bost gehi bost.
3. Leunki.
4. Azalekoa ez dena.
5. Gariaren hautsa.

EBAZPENAK

5X5:
1. IHESI
2. HAMAR
3. EMEKI
4. SAKON
5. IRINA

4	3	7	5	2	8	1	9	6						
1	8	9	6	7	4	3	2	5						
6	5	2	9	3	1	7	8	4						
8	2	1	7	4	6	5	3	9						
7	9	3	2	1	5	6	4	8						
5	4	6	8	9	3	2	1	7						
9	7	4	3	6	2	8	5	1						
3	1	8	4	5	7	9	6	2						
2	6	5	1	8	9	4	7	3						

	I		P						J		A		E	
A	L	A	U	I					C	A	R	L	E	S
	U	M	I	L						L	A	U	Z	A
O	N		G	D		S		H	E	B	A	I	N	
	P	O	D	O	L	O	G	O		A	K	N	E	
N	E	K	E		E	R	A	B	A	T		E	Z	
		A	M	E	T		B	E	L	A	T	Z		
L	U	G	O	R	R	I	A		T	R	A	K	A	
	D	A	N	D	A	R	R	E	Z		L	O	R	
M	A	R	T	I		U	R	R	U	N	A		R	
	B	R		T	I	R	A	T	Z	A	I	L	E	
K	E	I	N	U	K	A		Z	A	L	A	I	N	

Carles Palacio

FOTOKAZETARIA

"Ez diot utziko jazarpenari nire lanean eragiten"

Directa eta *ElNacional.cat* hedabideentzako egiten du lan Carles Palacio i Berta (Girona, Herrialde Katalanak, 1988) fotokazetariak. Jaioterriaz harago, *The New Yorker, Financial Times, Internazionale, Agència Nur* eta *The Guardian* hedabideetan ere argitaratu dituzte bere lanak. Argazkilari iaiotasunak onerako nabarmendu ohi duen arren, orain gutxi kazetaritzaren beste aldea ezagutu du: urtarrilaren 16an, lanean zebilela, Espainiako Poliziak Gironan egindako sarekadan atxilo eraman zuen.

TESTUA I **AMAIA LEKUNBERRI**
ARGAZKIAK I **JORDI BORRÀS**

Urriaren 1eko erreferendumaren urteurrenean AHTren Gironako errailak okupatu zituzten. Horren harira desordena publikoa leporatu dizute, lanean ari zinen arren.
Komisaldegian egun hartako argazkiak erakutsi zizkidaten. Kazetarien Elkargoko besoko laranjaz ageri nintzen. Kamera eskuan eta objektiboak gainean, argazkiak ateratzen eta berrikusten azaltzen nintzen. Lanean ari nintzela argi erakusten zuten.

Poliziei kazetaria zinela jakinarazi, eta hauek harrituta agertu ziren.
Ez dakit plantak egin zituzten edo, aginduak betetzera mugatuz, benetan ez zekiten nor atxilotzen zebiltzan. Deklarazioak egitean nire abokatuaren galderak erantzun nituen soilik, kazetaria nintzela ageriko eginez. Horrek ez zuen beraien iritzia aldatu, ez zuten horren gainean ezer esan. Karguekin aske utzi ninduten, eta listo.

Zein irakurketa egiten duzu atxiloketaz?
Atxiloketak guztiz errepresiboak izan dira. Argi eta garbi, askatasun pertsonalaz harago, prentsa eta adierazpen askatasunari eraso egin diote. Mundu guztia bezelaxe, kazetariak ere atxilotu ditzaketela jakinarazi nahi izan dute.

Kataluniak bizi duen egoera politikoa tarteko, prentsa askatasunaren kontrako oldarraldiak areagotu dira?
Bai, beste hainbat kidek ere pairatu dituzte halakoak. Bertan egon ezin direla esanez manifestazioetatik kanporatuak izan dira batzuk, eta kazetari gisa identifikatuta joan arren borra kolpeak jaso dituenik ere bada. Ez da Espainiako Poliziaren kontua soilik, Mossos d'Esquadrek ere badituzte horrelako jokaerak. Mossoek ez zaituzte atxilotzen, baina kazetariaren lana eta informatzeko askatasuna mugatzen dituzten praktikak izaten dituzte.

Lanean, behin baino gehiagotan beldurra sentitu duzula diozu.
Bai, polizia kolektiboen eta ultren manifestazioetan seinalatua senti-

ARGAZKIGINTZA SOZIALA IPAR

"Arte grafikoak ikasten hasi nintzenean arreta eman zidan argazkilaritzak, hain espazio urrian transmititu zezakeen guztiagatik eta darabilen ikusmintzairaren unibertsaltasunagatik. Kamera analogikoekin hasi nintzen nire lehen argazkiak egiten, etxean prozesatzen eta eskaneatzen nituen argazki-filmak. Auzoan gertatutako etxegabetze-segida batek eta hauen harira Gironako PAHren (Hipotekek Kaltetutakoen Plataforma) elkarretaratzeek argazkilaritza sozialean berretsi ninduten: errealitateen berri eman beharra neukan, nire argazkiak begiratuak eta baloratuak izateaz harago, zerbait gehiagorako balio zezaten. Fotokazetaritza ikasketak egitea erabaki nuen orduan, eta apurka-apurka hedabideekin kolaboratzen hasi nintzen"

tzen zara, norbait atzetik doakizula sentitzen duzu. Halakoetan ohartzen zara ez zarela zure lana libreki egiten ari, ez zarela beste edozein manifestaziotan bezala sentitzen.

Guzti honek nola eragiten du zure lanean?
Ez dut nahi gertakariok nire lanean eragina izaterik. Berdina egiten jarraituko dut, gisa berean eta arau berberekin. Ez diot utziko jazarpenari nire lanean eragiten. Eraren batean aurre egin behar diogula uste dut, "zuk ez nauzu kikilduko" adierazi.

Zeure burua autozentsuratzera heldu zara?
Kontu gehiagorekin zoaz, badago autozentsura pixka bat. Argazkiak ateratzen dituzu, baina nire kasuan ez dira atera nahiko nituzkeenak edo harro sentiarazten nautenak. Adibidez, polizia bati gorputz osoko argazki bat ateratzeko nahia izan dezaket, daraman taserra eguzki izpi batek zeharkatzen duen unea harrapatzekoa. Baina argazki horren harira arazoak izan ditzakedanez, buruan dudan irudia ordez taserra eta mossoaren plaka zatia ageri diren argazki bat aterako dut, agentearen identifikazio zenbakirik gabe. Argazkia egiten duzu, baina autozentsuratzen ari zara. Maila baxukoa izan arren, autozentsura da. Etengabe dituzu buruan argazkiek izan ditzaketen ondorioak eta Mozal Legea.

Mehatxuak ere egiten dizkizuete kazetarioi.
Bai, badakite nor zaren, norekin ibiltzen zaren, zure soslaia egiten aritu dira. Ez da batere atsegina.

Nondik begiratzen duzun, zure lanaren aitorpen moduko bat ere izan daiteke atxiloketa.
Bai, argi da nire lanari dagokionez zeozerrek gogaitu egiten dituela. Izan daiteke ditudan kontaktuengatik, egiten dudan lanagatik, argitaratzen dudanagatik edo nire lana argitaratzen dutenengatik. Niri dagokidanez saiatzen naiz panfleto itxurako ezer ez egiten, ezta proselitismo ukituko ezer ere. Hori bai, logikoa denez egiten ditudan argazkietan nire jarrera politikoa eta ideologia zein diren nabaritzea nahi dut. Horrek izorratu eta haserretu egiten dituela uste dut.

Atxiloketa tarteko, babestua sentitu zara?
Jende askoren erantzuna ikaragarria izan da, babesa sentitu dut. Dena den, esan beharra dago Kataluniako mugez harago jaso dudan erantzuna urria izan dela. Bertoko hedabide askok ere ez diote kasuari tokirik eman. Harrigarria iruditzen zait fotokazetari bat atxilotua izanik, hainbat hedabidek zein elkargok ezer gertatu izan ez balitz bezala jokatzea, kazetari guztioi eragiten digunean. Badirudi irakurketa hurrengoa dela: "katalana denez, ezkertiarra dirudienez eta *Directa*n argitaratzen duenez... zeozer egingo zuen".

Sarekada Gironan izateak ez dirudi kasualitatea denik.
Ez da kasualitatea, inolaz ere. Batez ere kontutan hartzen badugu Gironan plataforma antifaxistek, CDRek eta beste zenbaitek oihartzun handiko ekintza eta protestak egin dituztela. Gironan ere jarria dute begi bat. ●

BIDALI ZURE HARRIKADAK: **BERANDUEGI@ARGIA.EUS**

JUAN GUAI DO:

“Lagunen bultzadari esker, aurten *El Conquis* irabazteko moduan sentitzen naiz”

CARACASEKO EUZKAL ETXEKO SAGARDO DENBORALDIA IREKI DO GUAI DOK: “TXOOOOOTX”.

Jatorri eta abizen goierritarrak dituen Juan Guai Do venezuelarrak iragarri du ETB2ko “El Conquistador del Pacífico” lehiaketa berrian parte hartzeko gonbita luzatu diola Iñaki Anasagastiren ile-matazak, eta hari ezezkoa ematea bekatua izanik, plazerez helduko diola enbidoari. Estatu kolpeaz geroztik ezkutuan ibili beharra duenez, webcam bidez eman du erabakiaren berri, Caracaseko Euzkal Etxeko sukaldean prestatu dioten telebista-estudiotik. “Zin egiten dut nire esku dagoen guztia egingo dudala lehiaketa irabazteko, jan berri ditudan kokotxengatik! Abentura honetan ez nago bakarrik. Telebistara itsatsita egongo den lagun ugari dut inguruan, eta ziur haien botoei esker garaipena lortuko dudala. Beasaingo batzokian nire aldeko peña bat ere osatu dute, *El Conquis* emititzen den egunetan ETB2 nire aldeko whatsapp mezuekin kolapsatzeko. ●

SAREAN ARRANTZATUA

Ongi etorri Facebookera!

Pack ezinhobea

Andaluziako putzu batera bota dute Zubietako Erraustegia, ETBk gaiaz informatzen ote duen ikusteko

Malagako herri bateko putzura erori zen haurrari buruz Euskal Telebistak eman duen informazio kantitatea ikusirik, Gipuzkoako Erraustegiaren aurrako mugimenduak erabaki du Zubietakoaren ezaugarriak dauzkan erraustegi bat Andaluziako putzu batera botatzea. "Beste bide guztiak jorratu ditugu ETBn erraustegiari buruzko informazioa eman dezaten, ahoz, idatziz eta imintzioka ere saiatu gara. Baina uste dugu oraingo honetan baietz, lortuko dugula", azaldu dio Haizea Biranazan mugimenduko ordezkariak Beranduegiri. Ekimenak interesa piztu du ETBko erredakzioan: "Andaluzian da, ez Zubietan: hau euskaldunek jakin behar dute!", oihukatu du informatiboetako buru Mikel Garikoitz Ibargutxi Guzuraskok, zenbait iturriren arabera. ●

ATXEGA JAUREGIA
jatetxea

Aitzezarra,1

Zumartegi industrialdea

✆ 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com

Aukeratu Publikoa, guztiona
Elige La Pública, la de todas y todos

AURREMATRIKULAZIOA 2019/2020

Otsailaren 4tik 8ra

www.aurrematrikulazioa.nafarroa.eus

INFORMAZIOA 012 INFORMACIÓN

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra